

KOLONBIA: Indarkeriak eta autoritarismoak gora egin dute, areago covid-19arekin > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Pandemia garaian betiko polizia osasuntsuago **RAMON SOLA > 11**

2020ko irailaren 19a | XIV. urtea • 689. zenbakia
0,50 euro


GAUR8 

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



Raul BOGAJO | FOKU

AMELIA BARQUIN: «IRAKASLEAK IKASLEAREN EGOERA EKONOMIKOA ETA SOZIALA IKUSTEN IKASI BEHAR DU» > 22



Indarkeriak eta autoritarismoak gora egin dute Kolonbian, areago covid-19arekin 04

Irail Beltza: 50 urte bete dira Jordaniak palestinar fedajinak bota zituenetik 08

Nafarroako Bizkaian herriak desagertu ziren, baina memoriak bizirik dirau 12

Antzerkia, pandemiak kolpatuta baina oholtzan gogotsu 17

Sarean 19

Elkarrizketa: Amelia Barquin Lopez, Huheziko irakaslea 22

Sarean 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Kezkagarriak diren joerak eta haien ifrentzuak
- 10 **Oier Gorosabel:** De Quervain
- 11 **Ramon Sola:** Pandemia garaian betiko polizia osasuntsuago
- 16 **Alai Zubimendi**
- 20 **Gorka Etxebarria Dueñas:**
Guztiok gorroto dugu Thatcher, baina ez da nahikoa
- 21 **Amaia Nausia Pimoulier:**
Okupa
- 27 **Joxean Agirre:** PNV-PSE
- 27 **Nekane Zinkunegi**
Barandiaran: Faxisten gorrotoa
- 30 **Garazi Goia:** Paraleloa eta beste paralelo bat



{ datorrena } Iñaki Soto

Kezkagarriak diren joerak eta haien ifrentzuak

Pandemiak zenbait joera indartu eta azkartu ditu. Horietatik zenbait positiboak dira, zalantzarik gabe. Adibidez, gauza garrantzitsuek garrantzia hartu dute berriro –bizitza, osasuna, maitasuna, lana... Norberak egin dezala bere zerrenda eta jar ditzala gauza garrantzitsuak nahi duen ordenan–. Ez soilik plano pertsonalean, baita komunitarioan eta are planetarioan ere. Horren adibide da klima larrialdiak agenda publikoan hartu duen lekua. Jakina, alor horretan ez dira hartu beharreko neurriak hartu, baina piztu den kontzientzia gauzak aldatu ahal izateko baldintza da.

Bestalde, baina horrekin lotuta, jendarte mailan zientziak, baita ezagutzak ere, indarra hartu dute. Zenbaiten kasuan, teologia berri bat bihurtzeraino, oso modu ilustratuan. Hori eztabaidatzea, edonola ere, zientziaren aurkako jarrerarekin borrokatzea baino errazagoa da.

Okerrak diren joerak aipatzen hasita, indibidualismoak bereziki kezkatzen nau. Gure artean arrotza zen arrazoibidea nagusitzen ari ote den zalantza daukat. Norberaren egoera eta interes partikularretik abiatuta gauzak justifikatzea normala izan daiteke, puntu batera arte.

Baina graduak daude. Zenbait pertsonak politika publikoak behar partikular horien arabera, eta horien arabera soilik, justifikatzen dituzte. Nire ardurapean pertsona zaurgarri bat baldin badago, baldintza jakin batzuekin, horien arabera diseinatu eta justifikatuko dut gobernuek egin beharko luketena, besterik kontuan hartu gabe. Kontrara, nire kargu umeak baldin badauzkat, horiek beharko lukete lehentasuna izan, ez niretzat, baizik eta jendartearentzat. Gauza guztien gainetik. Hemen eta orain. Nire baldintzak aldatzen baldin badira, nire jarrera aldatuko da, trantsiziorik gabe, interes partikular berrien mesedetan. Behar partikular horiek, ordea, ez dira agerikoak izango. Moralki gailentzen saiatuko naiz, sarri

manipulazioaren bidez. Kolektibismo zorrotzaren ajeak utzi duen panorama ez da, ez, espero genuena izan.

Horrekin lotuta, kongruentziaren galerak kezkatzen nau. Kongruentziak marko bat eskaintzen digu, jokabidez aldatuta ere, gauzak ulergarri egiten dituen marko orokor bat. Ez hori soilik: kongruentziak gauzak ulertzeko aukera ematen du, baita gauzak zergatik ez ditugun ulertzen ulertzeko aukera ere. Pandemian, politika publikoak azaltzerakoan, balio horren faltak kalte handia eragin du. Besteak beste, jarrera indibidualistei hauspoa eman die. Adibidez, maskaren inguruan egin den eztabaida guztiz desitxuratu du, nire ustez.

Horrekin batera, kezkagarria da polarizazio joera, edonondik begiratuta. Aurrekoarekin lotuz, binarismo sinplifikatzaile horrek jendea teologiaren, edo interes parti-

Indibidualismoa, inkongruentzia, polarizazioa, sinplekeria... Zenbait joera kezkagarri azkartu egin direla dirudi, eta horien aurka egiteko, agian, ifrentzu bertutetsuari erreparatu behar diogu

kularren, edo jokabide inkongruenteen alde lerratzea bultzatu du. Polarizazioak pluralismoaren eta konplexutasunaren kontra egiten du. Pandemia, bizitzaren gauza garrantzitsuak, klima, interes komunitarioak, politika publikoak, ideia eta estrategia aldaketak... gauza konplexuak dira, berez.

Hari horretatik tiraka, sinplekeria da joera beldurgarrietako bat. Ondo pentsatzen, agian ez zuzen, baina ondo pentsatzen ikasi behar dugu. Horrek ahalbidetuko du eztabaida publiko sakon, serio eta konplexu bat izatea. Komunitateek horren beharra dute. Horretarako, joera eskasak identifikatzeaz gain, haien ifrentzu bertutetsuak indartzen asmatu behar dugu. Ez da erraza. •

DUQUEREN BI URTEAK

Indarkeriak eta autoritarismoak gora egin dute Kolonbian, areago covid-19arekin

ATZERRIA / Ainara Lertxundi

Ivan Duque Kolonbiako presidentearen Gobernuaren bigarren urtea aztertu dute 500dik gora gobernuz kanpoko erakundek. Pandemiak eskubide murrizketak eta autoritarismoa areagotu egin dituela ohartarazi dute. Paramilitarismoa ia departamendu guztietan presente dago, sarraskiak bata bestearen atzetik gertatzen dira.

Pasa den astean, Kolonbiako Poliziak Javier Ordoñez 46 urteko abokatua hil zuen Bogotan. Gauez atera zen etxetik, antza lagun batzuekin egon eta gero. Kanean, bi poliziak geldiarazi zuten eta taser pistola elektriko batekin hainbat alditan tiro egin zioten, kanean, lurrean etzanda zegoela. Atxiloketa jasotzen duen grabazioan Ordoñezen erregruak entzun daitezke, «nahikoa» zela esanez, ezin zuela arnastu. Irudi horiek sare sozialetan zabaltzen eta amorruta eragin zuten. Ordoñez bizirik eraman zuten polizia etxera eta handik gutxira ospitalean hil zen. Bi seme-alaba zituen eta ogibidez taxilaria zen arren, Zuzenbide ikasketak bukatzeaz zegoen. Haren gorpuak tortura zantzuak zituela salatu zuten senideek.

Heriotza horrek protestak eragin zituen Kolonbiako hiriburuan, batik bat, eta gainerako hirigune garrantzitsuetan. Polizia gogor oldartu zen manifestarien kontra. Hamahiru hildako egon ziren. Gertaera horrek indarkeria polizialaren eta hura erreformatzeko beharraren inguruko eztabaida piztu du.

Bogotako alkate Claudia Lopez gertatutakoa ez dela ezberhar isolatu bat nabarmendu

zuen eta manifestazioetan Poliziak tiro egiteko agindurik ez zuela argitu zuen. Hortaz, zergatik egin zuten tiro galdetu du. Ordoñezen heriotza eztabaida baten ondorio gisa aurkeztu ondoren –mozkortuta zegoela eta poliziei oldartu zitzaizela izan zen hasierako bertsio ofiziala–, aste honetan bertan, Carlos Holmes Trujillo Defentsa ministroak Senatuan aitortu du «poliziarren gehiegizko indarkeriaren» ondorioz hil zela abokatua. Oposizioak Trujilloren dimisioa

eskatu du eta Poliziak izaera zibila izatea eta ez militarra.

Hori ez da izan, tamalez, Kolonbiak izandako biolentzia gertaera bakarra. Azken asteotan, albiste izan da sarraskiek gora egin dutelako ere. Bakerako eta Ikerketarako Ikasketa Institutuak (Indepaz) urtarriletik irailaren 15era arte 57 sarraski erregistratu ditu. Hilketa horietan 230 pertsona zendu dira. Gehienak, Antioquian (18), Caucan (8) eta Nariñon (8). Baina, sarraskiak –ekintza armatu berean hi-

Kolonbiako presidentea, Ivan Duque, Latinoamerikako tunelik luzeenaren inaugurazioan irailaren 4an Quindion. KOLONBIAKO PRESIDENTETZA



Indarkeria polizialaren kontra Medellinen egin zen protesta. Joaquín SARMIENTO / AFP

ru pertsona edo gehiago hiltzea– Kolonbiako 32 departamenduetatik 17tan erregistratu ditu Indepaz institutuak.

Alarma gorria piztu zen Calin eta Samaniegon (Nariño) egin-dako bi sarraskiren ondorioz; gordintasunagatik eta biktimak oso gazteak zirelako. Abuztuaren 11n, 14 eta 15 urteko bost nerabe bortizki hil zituzten Caliko kanpoaldean, kanaberadi batean. Hiru pertsona atxilotu dituzte hilketa horientatik.

Handik lau egunetara, beste zortzi gazte hil zituzten etxe batean Samaniegon, Nariño departamenduan. Eguna elkarrekin igarotzeko elkartu ziren adiskideak. Argitara eman ez dituzten arrazoiak zirela medio, armatutako gizon talde bat etxean sar-



Javier Ordoñez heriotza salatzeke Bogotan egin zen protestan Polizia oldartu egin zen. Behean, Ordoñez hiletan emakume bat justizia eske.

Juan BARRETO | AFP



tu eta bertan tirokatu zituzten gazteak.

Hendrix Hinestroza, Nidia Gongora, Alexis Play eta Junior Jein kantautore kolonbiarrek “¿Quién los mató?” izenburua daraman abestia osatu dute.

«Caliko gaztetxoek hilketak izugarritzko samina eragin zizun. Egun gutxitara, Samaniego gertatutakoaren berri izan genuen. Tristeia eta amorragerria da horrelako sarraskiak gure herrian gertatzen jarraitzea. Justizia eta erantzun eske hasi nintzen abesti hau idazten. Oso gutxitan jakiten da-eta zeintzuk diren sarraskien arduradunak», azaldu du Hinestrozak.

«Benetan, bihotza estutu egiten zait. Gai zaila eta gogorra da. Espero dut abesti honek gizarte-

an nolabaiteko aldaketaren bat eragitea zeren ezin gara soilik amorrutan, minean eta malenkonian gelditu», gaineratu du. Kantuarekin batera bideo bat egin dute indarkeriaren gordin-tasuna eta familia horien samina islatzeko. «Benetako justizia eskatzen dugu, ez ditugu jukutriak nahi», nabarmendu du Hinestrozak. Beldurrarekin bizitzeari uko egiten dio, «kaletik lasai ibili nahi dut eta ez desageraraziko ote nauten beldurrez».

DEMOKRAZIA MURRIZTEN

Kolonbiako 500dik gora gobernu kanpoko erakunde eta gizarte eragilek aurkeztu berri dute Ivan Duqueren bi urteko gobernuaren gaineko balantzea. Zazpi atal jorratzen dituen txosten

mardula da. 2019ko irailean gobernuaren lehenengo urtearen gaineko balorazioa egin zuten; oraingo honetan “El desgobierno del aprendiz. Autoritarismo, guerra y pandemia” orduan egindako diagnosia eguneratu dute. Covid-19aren pandemiak demokrazian eta giza eskubideetan izan dituen ondorioak aztertzen dituzte. Salatu dute koronabirusa aitzakia hartuta, Gobernuak alde bakarreko erabakiak eta neurriak hartu dituela, gizartearen eta oposizioaren parte hartzea baztertuz. Era berean, bi urte hauetan, Ivan Duquek Habanako bake akordioa ez betetzeaz gain, FARC-EP gerrillak eta Juan Manuel Santosen Gobernuak adostu eta sinatutakoaren funtsa eta filosofia aldatu egin ditu. Ne-

Osasunaren alorrean, Ivan Duqueren Gobernuari pandemiaren kudeaketa sektore pribatuaren esku uztea eta neurri eraginkorrik ez hartzea leporatzen diote

Mugan dauden departamenduen eta Estatuak presentzia gutxi duen eremuen egoera bereziki dela kezagarria ohartarazi dute gobernu kanpoko erakundeek


«Paramilitarismoaren gaineko azterketa sakona egin beharrean, fenomeno horren konplizitate guztiak ikertuz, lurraldeen militarizazioa lehenetsi du Gobernuak»

kazariantzako Lur Funtza –bake akordioaren zutabeetako bat– geldituta dago, legez kontrako erabilera duten laboreak ordeztuko plana ere ez du garatu Gobernuak; aitzitik, «drogen kontrako gerra» doktrina abian ipini du berriaz, airezko fumigazioak bikoiztu egin ditu. Segurtasun Bermeen Batzorde Nazionalak bere izaera galdu duela ere nabarmendu dute txostenaren egileek, lurraldeetan segurtasuna bermatzeko neurriak hartu ordez, «estatistika huttsak» ematen dituela.

Paramilitarismoak gora egin du. Baina fenomeno hori ez dela talde armatuetara soilik mugatzen ohartarazi du Preso Politikoen Elkartasun Batzordeak –ikerketan esku hartu duen gobernuz kanpoko erakundeetako bat–.

«Estatu kolonbiarrak, ordea, ez du fenomeno bere osotasunean aztertu nahi. Arlo militarri besterik ez dio erreparatzen, arazoaren benetako dimentsioa kontuan hartu gabe eta, hortaz, estrategia eraginkorrak diseinatu gabe. Bizi dugun pandemiaren testuinguruan, Autodefensas Unidas de Colombia (AUC) talde paramilitarra desmobilizatu eta gero sortu ziren talde armatuak biderkatu egin dira eta lurraldeetan duten boterea areagotzen ari dira, bereziki FARC-EPko gerrillariak utzitako eremuetan. Egun ditugun taldeen artean hauek azpimarra daitezke: Autodefensas Gaitanistas de Colombia –22 departamendutan daude, bereziki, Pazifikokoan, Kariben eta ipar-ekialdeko departamenduetan–, Los Rastrojos, Los Pachencas, Los Caparros eta La Constru. 29 departamendutan aipaturiko talde horietako baten edo bat baino gehiagoren presentzia erregistratu du Indepazek. Kolonbiaren azaleraren %90 da

«Estatuak Habanako bake akordioa betetzen duelako itxura egiten du, baina, errealitatean bake akordioaren edukia aldatu du»



Samaniegoko etxearen kontra egindako tiroen aztarnak. GAUR8



Samaniegoko hil zuten gazte baten ama, Gladys Betancourth. Luis ROBAYO / AFP

hori. Gainera, talde horien arteko aliantzak areagotu eta egonkortu egin dira. Alvaro Uribe presidentearen garaian, AUC talde paramilitarraren alde bateko desmobilizazioa argudio hartuta, geroztik egon diren gobernu desberdinek paramilitarismoa dagoela ukatu dute, legez kanpoko gaizkile taldeak direla esanez. Modu horretan, paramilitarismoak Estatuarekin, politikarekin, ekonomiarekin eta indar armatuekin izan duen lotura ukatzen dutela nabarmendu dute “Estatu kolonbiarra eta paramilitarismoa” kapituluaren egileek.

«Paramilitarismoa sakonean aztertu ordez, fenomeno horren konplizitate eta laguntza guztiak ikertuz, lurraldeen militarizazioa lehenetsi du Gobernuak», gaitzetsi dute.

Habanako akordioei buruz, Ivan Duquek horiek betetzen dituelako planta egiten duela deitoratu dute. «Estatuak FARC-EPekin hartutako konpromisoak betetzen dituelako itxura egin du, baina, errealitatean bake akordioaren edukia aldatu du. Gobernuak bide horretan jarraitzen badu, lurraldeetan paramilitarismoa eta indarkeria areagotu egingo dira», aurreikusi dute.


2019. urtea giza eskubideen defendatzaileen kontra azken hamarkadan egon den urterik gogorrena izan zen. Defendatzaileak Gara programaren arabera, 844 eraso izan ziren, horietatik %74,4 mehatxuak, %14,6 hilketak, %6 atentatuak, %3,4 arrazoirik gabeko atxiloketak, %0,8 informazio lapurretak, %0,3 desagertpenak eta %0,1 prozesu judizialak. Iaz, herri mobilizazioak indar handia hartu zuen. Azaroaren 21ean lan eta pentsioen erreforma proiektuaren kontra eta Habanako akordioaren alde Geldialdi Nazionala



hasi zen, talde, sindikatu, elkarre eta mugimendu anitz bilduz. Errepresioa gogorra izan zen.

Aurten, urtarril eta martxo bitartean, 197 eraso zenbatu zituen Defendatzaileak Gara programak. Iazko garai berarekin alderatuta, %88ko igoera da.

Kargua sinatu zuenetik, Duquek Barne Ministerioaren Giza Eskubideen Zuzendaritza eskuindar sektoreen esku utzi du. Bi urte hauetan oraindik ez du LGBTI biztanleria babesteko plangintza garatu, aitzitik, Giza Eskubideen Zuzendaritzako kide bat LGBTI pertsonen eskubideen kontra agertu zen eta bere lanpostuan egon zen bitartean, kolektibo hori babesteko ekimen guztiak oztopatu zituen, funtzionario ohien esanetan.



Barne etsaiaren eta segurtasun nazionalaren doktrina Gobernu politikaren ardatza dira. Talde armatuen kontrako borrokan, «emaitzak lortzeko pizgarriak» martxan jarri ditu berriz. Alvaro Uriberen garaian –baita Santosekin ere–, politika horrek hilketa estrajudizialak eragin zituen. Gerrillarekin zerikusia ez zuten ehunka gazte bahitu eta borrokan hildako gerrillariak izango balira bezala aurkeztu zituen Armadak. Pandemiak baliaturik, Gobernuak «autoritarismoa» areagotu egin duela ondorioztatu dute txostenaren egileek. Adibidez, besteak beste, hiru hilabeteetan Gobernuak 164 lege dekretu onartu zituen. Horieta-tik bakarrik 11k zuten harreman zuzena osasun sistemarekin.

Caliko kanpoaldean, kanaberadi batean, abuztuaren 11n gertatutako bost nerabe afro-kolonbiarren hilketa salatzeke kamiseta. Luis ROBAYO | AFP

«AUTORITARISMOAREN PANDEMIA» GAINDITZEKO HAINBAT GOMENDIO

«Autoritarismoaren pandemia» gainditzeko, ikerketaren egileek funtsezkotzat jotzen dute Kongresuak benetako kontrol politikoa egitea eta dituen eskumenak Gobernuak bere aldetik argitara eman dituen dekretuak berrikusi, aldatu edo eta bertan behera uzteko erabiltzea. Auzitegi Konstituzionalak ere alde bakarreko dekretu horien gainera kontrola egin beharko lukeela adierazi dute. Era berean, covid-19ari aurre egiteko harturiko neurriak ez direla egokiak eta eraginkorrak izan salatu dute, besteak beste, Gobernuak osasun arloko profesionalen trebakuntza ez duela sustatu, balizko tratamenduak ikertzeko baliabide ekonomikorik ez duela ipini eta antzinako metodoak ez aintzat hartzea gaitzetsi dute. Osasunaren alorrean eztabaida sakona eskatu dute, egungo sistema indarrean mantenduz

Zenbait hiritan protestak egon ziren Estatuari osasun krisiari erantzuteko baliabide gehiago eskatzeko; poliziak gas negar-eragileak eta nahasmendua sortzeko granadak erabili zituen.

Osasunaren alorrean, pandemiaren kudeaketa sektore pribatuaren esku utzi dutela nabarmendu dute giza eskubideen defentsan lan egiten duten gobernu kanpoko erakundeek.

«Ez dago Estatu mailako konpromiso eta estrategia bat. Egingdako diagnosa partziala da; ez dago balizko kutsatuak detektatzeko bilaketa programa eraginkorrik. Gobernuak ez ditu aintzat hartu lurralde bakoitzaren berezitasunak eta beharrak. Osasun zerbitzuetara heltzeko baliabide eskasak dituzte Kolonbiako eremu askotan. Gauza bera gertatzen da ur hornidurarekin; enpresa pribatuen esku utzi du, baina leku askotan ez dute ubiderik gertu eta ez dute aukerarik enpresa horiek eskaintzen duten programan sartzeko. Hezkuntzari dagokionez, Internet izatea zai-

la da eta dagoenean ere, tresna teknologikoak falta dira. 2018an egindako inkesta baten arabera, hirietan etxeen %50,8tan dago ordenagailu bat. Landa guneeetan, berriz, soilik %9,4k du ordenagailuren bat. Hezkuntza Ministerioak ez du deus ere egin hirien eta landaren arteko alde hori txikitzeko eta landa gunetako eskolen beharrak eta gabeziak asetzeko. Ikastetxe askok ez dituzte gutxieneko osasun neurriak betetzen, gelak gainezka daude, ur edangarririk ez dute, desinfekzioarako eta garbiketarako materiala falta dute».

Ekonomian, Gobernuak finantza erakundeak lehenetsi dituela gaitzetsi dute: «Hirugarren maila batean utzi ditu enpresa ertain eta txikiak, nahiz eta horiek Kolonbian dauden enpresen %96 izan. Biztanleria aktiboaren %54,7, hots 23,3 milioi pertsona, herri ekonomiaren parte dira; 12,2 milioi pertsona egunean bizi dira, aurrezteko gaitasunik gabe. 2020ko apirilean langabezia tasa %20koa zen».

gero, ahul izaten jarraituko baitu. Internet izateko arazoak, itxialdiak eta urruntze sozialak hezkuntzarako eskubidea urratu egin dutela ohartarazi dute, halaber. Covid-19ak eragindako osasun, gizarte eta ekonomia krisiak mugan dauden departamenduen edo Estatuak presentzia eskasa duen lurraldeen ahuldadea agerian utzi duela mahaigaineratu dute. Bereziki kezkarria da Amazonas, Choco, San Andres, Providencia eta Santa Catalinako egoera. Era berean, giza eskubideen defendatzaileen segurtasunerako bermeak, bake akordioa bere osotasunean betetzea, ELNrekin elkarriketak berriro abian jartzeko aditu talde bat izendatzea eta elite politikoaren, narkotrafikoaren eta paramilitarismoren arteko loturak ikertzea eskatu dute, besteak beste, gomendioen atalean.

IRAIL BELTZA GOGOAN

Jordaniak palestinar fedajinak bota zituenetik 50 urte bete dira

📁 POLITIKA / Dabid LAZKANOITURBURU

Palestinar erresistentziarentzat izugarrizko kolpea izan zen 1967. urteko Sei Eguneko Gerran arabiar armadei Israelek emandako jipoia. Eta ez bakarrik Egiptok, Siriak, Irakek eta Jordaniak erakutsi zuten ahuldadeagatik. Israelek Zisjordia okupatu zuen eta Jerusalem hiriburuaren egoera are gehiago zaildu zen. Horrenbestez, gogorra izan zen arabiar erregimenek gerra galdu ondorengo ordaina palestinarrentzat

Yasser Arafat buruzagiak, handik bi urtera, 1969an, Palestina Askatzeko Erakundeko (PAE) buru izendatu zutenak, Jordanian bildu zituen 40.000 palestinar borrokalaria. Izan ere, han zeuden 1948an Israelgo Estatua sortu zenetik ondorengo garbiketa etnikotik ihes egin zuten ehunka mila palestinar erre-fuxiatu.


Jordaniako «Estatuaren barnean Estatua» eratuz, palestinar fedajinek entrenamendu eremuak eta base militarrek zabaldu zituzten, eta handik egiten zioten eraso Israeli. Segurtasunik eza nagusitu da Jordania guztian, bai eta Amman hiriburuan ere, non tiroketak eguneroko kontua bilakatu ziren.

Hussein erregeak nahiko arazo zituen bere armada guztia kontrolatzeko eta fedajinen hainbat segadatatik ozta-ozta irten zen bizirik.

ISRAELGO ESTATUA ONARTZEA

1970. urteko udan, Egiptok eta Jordaniak Ameriketako Estatu Batuek egindako plana onartu zuten, Nazio Batuaren Segurtasun Kontseiluko 242. ebazpenean oinarrituta.

1970. urteko irailaren 17an, Jordaniako Armadak erasoaldi bati ekin zion palestinar borrokariaren esku zeuden eskualdeak berreskuratzeko. «Irail Beltza» izenarekin bataiatu zen ekintza odoltsu haren bidez, Ammango erregimenak palestinar erresistentzia behin betirako bota zuen haxemiar erresumatik.



Horrela, bada, bi arabiar herrialde horiek Israelgo Estatua onartu zuten. Palestinarren haserrea, jakina, izugarria izan zen.

Azken egun hauetan ez da makalagoa Arabiar Emirerri Batuek (AEB) eta Bahraingo erregimenak erabaki hori bera hartzeak eragin duen haserrea

palestinarrengan. Kontua da palestinarrek ez daukatela da-goeneko indarrik eta barne liskarren ondorioz ahulduta daudela.

1970eko irailean, Palestina Askatzeko Herri Fronteak (PAHF), Georges Habachek gidatuta, hiru hegazkin desbideratu zituen. Horietatik hiru Jordaniako basamortuan lur hartzera behartu zituzten. Dozenaka bidaiari bahitu eta suntsitu egin zituzten hegazkinak.

Haxemiar dinastiako erregeak bere tronua arriskuan ikusi zuen eta fedajinek Ammanen zituzten egoitzak suntsitzeko agindua eman zien Armadako 50.000 soldaduri hilaren 17an,

ERREPRESIO ODOLTSUA

Tankeetan igota, soldaduek, aurpegia ikatzarekin belztuta, hiriburuaren alde zaharretik eraso egin zieten hiriaren kanpoaldean zeuden errefuxiatu eremuei eta entrenamendu baseei.

Biharamunean, liskarrak Irbidera, Zarkara eta Ramthara (Jordaniako iparralde) zabaldu ziren. Erregearen Armadak ez zuen izan artilleria sua erabiltzeko lotsarik.

Irailaren 20an, Siria palestinar fedajinen alde atera zen eta Jordaniako iparraldera blindatuak bidali zituen, eta, horrela, bi frontetan borrokatzera behartu zuen erregearen Armada.

Hilaren 23an, ordura arte hotelean erregimenaren aginduz konfinatuta zeuden mendebaldeko kazetariak aukera izan zuten kalera ateratzeko eta «hiriburu fantasma» bat aurkitu zuten.

«Auzo bat bera ere ez da libratu». «Etxe guztietan daude liskarren aztarnak; batzuk obusen batek lehertu ditu, beste batzuetan arma astunen erasoan aztarnak daude», idatzi zuten kazetariak. «Ammannen zegoen Wahdateko pales-

tinaren eremua, PAHFren gotorlekua, kea darion hondakin multzoa baino ez da».

Liskarretan odola barra-barra isuri zen. Jordaniako errejimeneren datuen arabera, 3.000 izan ziren hildakoak, palestinar borrokalariak, soldaduak eta zibilak barne. Palestina Askatzeko Erakundeak (PAE), ordea, dozenaka mila hildako salatu zituen.

FEDAJIN GUZTIAK, KANPORA


Irailaren 27an, eta arabiar agintariek aurreko egunetan Kairon egin zuten negoziazioaren ostean, Egiptoko presidente Gamal Abdel Nasserrek akordio bat sinatzera behartu zituen Hussein Jordaniako erregea eta Yasser Arafat PAEren burua. PAHFk oraindik bahituta zituen pertsonak askatu egin zituen hurrengo bi egunetan.

Akordio horrek, ordea, ez zuen benetako auzia konpondu, fedajinei Jordanian jarraitzeko eta beren ekintzetan jarduten jarraitzeko eskubidea bermatzen zielako. Horrela, bada, bakeak ez zuen asko iraun eta berriro ere liskarrak hasi ziren 1971. urteko urtarrilean eta martxoan.

Hala ere, Jordaniako errejimenerak bereari eutsi zion eta pixkanaka baina etenik gabe palestinar borrokalariak herrialdetik botatzen jarraitu zuen Wasfi Tal lehen ministro berriaren agindupean.

1971ko uztaileko, azken palestinar fedajinak Jordaniatik atera ziren eta Libano bihurtu zuten egoitza nagusia. Zedroen herrialdean handik lau urtetara hasi zen gerra zibilean parte hartze zuzena izan zuen. Nolanahi ere, hori beste kontu bat da.

«Ezinbestekoa zen: eurak edo gu», justifikatu nahi izan



Aurreko irudian, Fatahko gerrillariak Amman Jordaniako hiriburuaren kanpoaldean. Lerroon gainean, Jordaniako Armadaren eraso palestinarren entrenamendu eremuen aurka.
AFP

zuen Hussein erregeak. Haxemiar erregeak eta Arafatek bakea sinatu zuten elkarri eskua emanda, baina mesfidantza ez zen sekula uxatu bien artean.

MUNICHEKO BAHIKETA

Urte hartako azaroaren 28an palestinar komando batek Wasfi Tal lehen ministro jordaniarra hil zuen atentatu batean. Irail Beltza izeneko talde batek hartu zuen bere gain eraso. Erakunde horren jaio-tze odoltsua izan zen. Talde armatuak operazio anitz alda-

rrikatu zituen ordutik aurrera. Municheko Olinpiar Jokoetan egindako Israelgo atleten bahiketa ikusgarria izan zen sonatuena. 1972. urteko irailaren 5ean, Irail Beltza erakundeko lau kide hiri olinpikoan sartu ziren, bi atleta israeldar hil eta beste bederatzi bahitu zituzten. Asmoa zen Israelek preso zituen 200 palestinarrekin trukea egitea.

Bahitzaileak hotelean babes-tu ziren bahituekin eta Alemaniako poliziaren ahuleziak ikusi ziren, behin baino gehia-

gotan porrot egin baitzuen bahituak askatzen saiatzean.

Berlinek ez zuen onartu Israelek militar talde berezia bidaltzea. Azkenean, Alemaniako hiriburuko aireportu batera joateko baimena eman zieten bahitzaileei, baina bi helikopterotan igota zeudenean, hegazkin batera joateko prest, poliziaren talde berezi baten operazioan bahitu guztiak, bost bahitzaile eta polizia bat hil ziren. Eskandalua izugarria izan zen eta Olinpiar Jokoein jarraitzeko erabakiak haserrearekin erabakiak haserrearekin erabakiak

Bizirik atera ziren hiru bahitzaileak preso sartu zituzten baina aske utzi behar izan zituzten Irail Beltzak Lufthansaren hegazkin bat bahitu ondoren. Israelek ez zuen barkatu eta hiru bahitzaileak eta taldeko ardura-dun gehienak hil zituen ondorengo urteetan, “Jahveren Sumina” operazioan.

Sei Eguneko Gerra galdu eta Egiptorekin batera Israel onartu ondoren, Jordaniak palestinarren presioa sentitzen zuen bere lurraldean eta hura odoletan arintzea erabaki zuen

Irail Beltzeko erasoaldiaren ostean izen bera hartu zuen palestinar talde armatu batek eta hainbat eraso egin zituen munduan, sonatuena Municheko Olinpiar Jokoetako bahiketa



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

De Quervain

Gaurkoan aztertuko dugun eskumuturreko tendoien arazoa deskribatzeaz gain, Fritz de Quervain jaunak (1868-1940) gauza gehiago ere egin zituen bizitzan (tiroide gurutza-aren arazoetan autoritate handia izan zen, esate baterako). Baina, fisioterapia arloan behintzat, bere izena esatea eta tendinopatia mota berezi hau gogoratzea, dena bat izaten da. De Quervainen sindromea erpuruko tendoien arazo bat da, eskumuturraren dortsosan zeharka egiten duten bidean gertatzen dena. Puntu horretan (oso nabarmena, pertsona muskulutsuetan) *abductor pollicis longus* eta *extensor pollicis brevis* tendoiek nolabaiteko bide espiral bat egiten dute, erpu-ruaren puntun eta muskuluen gorputzen artean. Bihurgu- ne horretan “erretinakulu” izeneko egitura dugu: tendoiei bere lekuan eusteko funtzioa duen lotailu handi bat, az-ken finean. Erretinakulu horren forma irudika dezazuen, 1980ko hamarkadan modan izan ziren (eta zorionez itzuli ez diren) belusezko kirol-eskumutur horiek bezalakoa da. Bere barruan tendoiendako zenbait pasabide ditu, eta haietako batean (lehenengoan) pasatzen dira aipatu ten- doiak.


Kontua da egiturok neurrira hartuta bezala daudela: milimetro bat ere ez dago sobran, alegia. Horregatik, nahikoa da egiturotako bat narritatzea, handitasun bat sortzeko; eta egoera horretan, tendoiek ez dute nahikoa leku erretinakulutik pasatzeko eta beren lana behar bezala egiteko. Hori gertatzeko arrazoi asko egon daitezke, baina batez ere erpurua-ren mugimendu errepika-korrekin lotu izan da: lan-postuan, edo, azken urteotan, mugikorrean idaztean eginikoa. Sinto-ma nagusia mina izaten da: eskumuturraren alboan nagusiki, baina ez da arraroa besaurrera ere irradiatzea. Pazienteak ezin izaten du eskua erabili, eskumuturreko eta erpuruko mugimenduekin mina handitzen baita. Mina, bereziki, gauza astunak eskuetan hartzean igartzen du. Zenbait kasutan hantura ager badaiteke

ere, hori ez da beti gertatzen; horregatik, “tendinitis” izena baino, “tendinopatia” da egokiagoa.

Arazoa gardena izaten da, erraz diagnostikatzekoa. Fin-
kelsteinen testaren (tendoiak luzatzen dira erpuuraren
adukzioa eta eskumuturraren alboratze kubitala gehi-
tuz) emaitza positibo izatea De Quervainen sindromea-
ren zeinu argitzat hartu izan da, baina badira antzeko
sintomak eman ditzaketen zenbait arazo ere, eta horien-
gandik bereiztea komeni da, tratamenduari norabide
egokia emate aldera. Horretarako, ezinbestekoa izango da
pazientearen historia klinikoa egokiro jasotzea eta esplora-
zioa behar bezala egitea.

De Quervainen sindromea, tratamenduaren helburua erretinakuluan dagoen leku-gatazka arintzea izaten da. Hasierako urteetan beti soluzio kirurgikoa eman zitzaien, lotailua ebakiz, baina XX. mendean tratamendu kontserbatzailea lehenetsi zen, emaitza onekin: 50eko hamarkadatik aurrera kortikosteroide inekzioak erabiltzen hasi ziren. Gaur egun, horrekin batera, terapia fisikoa asko erabiltzen da eskuaren mugimendua egokiro egiteko, hantura dagoenean hura desinflamatzeko, minaren analgesiarako... Tratamendu kontserbatzaileekin hobekuntzarik ez dagoen kasuetan baino ez da erabiltzen egun kirurgia. •

www.abante.eus



«Tendinotapia» oso ohikoa da egun, maiz ordenagailuaren eta telefono mugikorraren erabileragatik. GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Pandemia garaian betiko polizia osasuntsuago

Hondamendi itzela eragin du pandemiak, baina denon bistan da sektore jakin batzuei etekina ekarri diela. Facebooken irabaziak aipatu dira, komertzio elektronikoen hazkunde nabaria ezagutu dugu, industria farmazeutikoak goia joko du... Baina, hala ere, horiek guztiak baino gehiago indartu den arlo neurtezin bat antzematen da: poliziala.

Bitxi-bitxiak dira covid-19aren izurriteak polizia ikusteko moduan ekarri dituen aldaketak, ikuskera horiek iraultzeraino. Ezkerrera begiratu, historikoki eta arrazoi osoz polizia etsai hartu duen askok eta askok uniforme gehiago faltan botatzen dituela ahoskatzen du orain erreparorik gabe, edo poliziakideak askoz gorrango jardutea, zenbait jokabide oker arriskutsu horrela zuzenduko direlakoan.

Baina eskuin aldera begiratu, agintearen babesle den neurrian polizia lagun estimagarritzat izan ohi duen askok eta askok deseroso hartzen du orain, nonbait bere askatasuna arriskuan jartzen duelako, liberalismoaren –edo negazionismoaren– kaltean.

Zinez, ez dakit bi jarreretakoz zein den kezkagarriena. Dakidana da hainbat polizia egiturak, bai eta armada boteretsuenek edo zinpeko zaindari arruntenek ere, egoera ederki baliatu dutela. Eta poliziaren eredu klasi-koenean egin dutela: aginte itsuan, jazarpena erabiliz, isun eta salaketak biderkatuz... Pandemiaren aitzakian, zilegitasuna, boterea, askotan inpunitatea, oztoporik gabe ari dira lantzen. Egoera bat edo beste, agian askotxo, guzti-guztiok ikusi dugu sei hilabete hauetan.

Bitartean, herritar asko barruan ezkutuan zeraman poliziakide txiki batez erditu da. Kazetari ugari ere, jakina. Arinkeria handiz zabaldu dira irudi eta audioak, eta horiekin batera frogarik gabeko usteak: zer dakigu, zinez, Altsasun pasa den asteburuan gertatutakoaz, Zurriolako surflariaz, Eibarko eskaleaz, konfinamen-

duan atxilotutako korrikalaria? Bertsio poliziala baino ez, kontrastatzeko aukerarik gabea, aurreiritzietan oinarritua eta sare sozialetako lintxamenduetarako puztua... Zenbait etorkinekin nola jokatzen ari den ikusita, ez zen harrigarria izango, AEBetan bezala, laster gehiegikeriaren bat azaleratzea: azken finean, Minneapolisen George Floyden antzera hil zen Elhadji Ndiaye Arrotxapean eta hemen ez da ezer gertatu.

Hori guztia esanda, kontuz: polizia (izen horrekin edo beste batekin, segurtasun sistema bat alegia) behar-beharrezkoa dela frogatu du pandemiak ere, nola uka daiteke? Kontua ez baita polizia bai ala ez, nolako polizia baizik. Guardia Zibila ez da Ertzaintza, Foruzaingoa ez da Hernaniko Udaltzaingoa. Zer behar du herri honek, zertarako, zerekin eta zenbat?

Polizia ereduari buruz egiteko dagoen eztabaidak abiapuntu gaiztoagoa izango du pandemia honen ostean, zegoena indartzeko ederki baliatu baitute

Iñigo Cabacasen hilketaren ostean, eztabaida horren beharra bortizki azaleratu zen, ETarik gabeko agertoki berrian gainera. Zortzi urte joan dira geroztik eta, ohi bezala, garaiz egiten ez denak usteltzen bukatzeko arriskua du. Abiapuntu gaiztoagoa izango du orain. Aurretik azaldutakoagatik eta belaunaldi berri batek izan duen poliziaren lehen bizipena zeharo desitxuratu dagoelako. Umeak ginela, labur esanda aita edo ama jipoitu edo atxilotu zezaketenak ziren guretzat poliziakideak: oraingo haurrentzat, aldiz, edozein txikieriarengatik autoan ziztu bizian argiak eta sirenak piztuta doazen superheroi antzeko batzuk izango direla sumatzen dut, konfinamendu garaian, gainera, urtebetetzea zoriontzera etxera etortzen zitzaizkizunak. •

NAFARROAKO BIZKAIAN, HERRIAK EZ DAUDE BAINA BIZIRIK DIRAU MEMORIAK

Nerea GOTI

Urtegiek herri asko desagerrarazi dituzte, baina Bizkaia izeneko nafar eremuan basogintzak eragin zuen herrien gainbehera. Han bizi zirenak ez ziren ez etxeen ez eta lurren jabeak ere. Herriak desagertu dira, baina bizimodu gogor eta zoriontsu haren memoriak bizirik dirau.


Nafarroaren bihotzean, Iruñetik 55 bat kilometrotara, Orbaibar eta Oibar artean, Bizkaia izeneko lur eremu bat dago. Orotara 3.600 hektarea inguru hartzen ditu, eta, orain, Ezporogi udalerriaren barruan dago. Egun, baso lursaila da inguru hura, baina hainbat herri ziren han. Azken bizilagunek 60ko hamarkadan egin zuten alde. Han bizi zirenak ez ziren lurren jabeak, maizterrak eta errentariak ziren guztiak. Beraz, 40ko eta 60ko hamarkaden artean, Diputazioak pixkanaka hango lursailak erosi zituen, pinuak landatzeko. Hori dela eta, etxeak husten joan ziren, herriak desagertu arte.

Urteekin naturak bere espazioa bereganatu du. Landarediak horma zaharrak irentsi ditu. Bakar batzuk baino ez daude oraindik ikusgai. Diotenez, ez da erraza ingurura gerturatzea. Sasiak bideak hartu dituzte, baina paraje hartan herriak zeuden: Sabai-za, Getadar, Julio, Arteta, Usunbeltz, Loia, Irangote eta Irangoiti, besteak beste. Herri horiek osatzen zuten Bizkaia, «horrela esaten baitzioten, gazteleraz, *la Vizcaya*, artikularekin».

Etxeak desagertu dira, herri haien memoriak, ordea, bizirik dirau. Han bizi zirenek eta haien ondorengoek jada existitzen ez diren herrien istorioak eta historia gorde dituzte. Horretaz hitz egiten du, hain zuzen ere, orain gutxi argitaratu den «La Bizkaia de Navarra. Memorias de un valle en silencio» liburuak.

Bizkaia zer zen ikertu duen Juan Jesus Recalde Recalde liburuaren egilearengana jo du GAUR8k herri haietako bizimodua irudikatu ahal izateko. Liburuak ez da herri haien memoria gordetzeko sortu den ekimen bakarra, baina aurten ekarpen hori bereziki baliotsua izan da ingurua oroitzen dutenentzat, covid-19aren osasun krisiak ohiko ospakizunak galara-zi baititu.

Recaldek 40 elkarrizketa baino gehiago egin ditu han bizi izan zirenekin. Artxiboetan ere murgildu



Juan Jesus Recalde Recalde ikertzailea argitaratu berri duen «La Bizkaia de Navarra. Memorias de un valle en silencio» liburuarekin. Idoia ZABALETA | FOKU

da informazio bila, dokumentuek ere asko esaten dutelako han gertatutakoaz. Egileak zehaztu duenez, liburuak bi zati ditu: artxiboetatik ateratako informazioarekin osatutako bat eta etnografiari lotutako beste bat.

IKERKETA, LEKUKOEKIN ETA ARTXIBOETAN

Liburuaren lehenengo atala osatzeko, 500 prozesu baino gehiago aztertu dituela azaldu du, bai eta milaka notario protokolo eta Nafarroako Kontuen Ganberako dokumentazioa ere.


Eremuak izan zituen herrien inguruan, Usaregi izena ere aipatzen du Recaldek. Dokumentazioan aurkitu du, baina ez da bertan jendea bizi zela eza-gutu. Eizkoren kasuan, berriz, dokumentazioan agertzen bada ere, Recalderen ustez egungo Izkorekin nahas daiteke, Oibar ibarreko herri bat izan zelako. Haren esanetan, ezin izan du herri horri lotutako zergeri buruzko agiri-rik aurkitu.

Egileari planteatutako lehen galdera

derrigorrezkoa da: zergatik hustu ziren Bizkaia herri haiek? «Ibar horren berezitasun nagusia da han bizi zirenak ez zirela lurren eta etxeen jabeak, bertan ez zen jabe bat bera ere bizi. Lurren jabeak nobleziakoak ziren guztiak eta Bizkaiatik kanpo bizi ziren, bertan errentariak eta maizterrak zituzten», azaldu du Recaldek.

Jabegorik ez edukitzeaz gain, bazeuden hango bizimodua zailtzen zuten beste arrazoi batzuk ere. Kontatzen duenez, «oso etxe pobreak ziren eta asmatzen ziren aurrerapenak, hala nola argia eta txorrotako ura, ez ziren haraino heltzen». «Lursaila ere oso maldatsua zen, zaila, eta nekazaritzaren mekanizazioari dagokionez zerbait egin zuten, baina, hala ere, ez zuten gauza handirik lortu», ikertzailearen arabera.

Hura irudikatze aldera, Recaldek aipatu du baxuen zegoen herria 500 metroko garaieran zegoela, baina altuena, berriz, 800 metrotan zegoen. Beraz, hurbileko herrietako etxeetan heda-



tzen hasi ziren erosotasunak ez ziren haraino heldu. Aldi berean, 40ko hamarkadan, Gobernua pixkanaka herriak erosten hasi zenean, «uste dut guztiek ikusi zutela zein zen erreallitatea», aipatu du Recalde.

Egun basoa dena 32 etxebizitza zituen ibar bat zen. Orbaibarretik sarrera bat du Bizkaiak, Morionestik beste bat. Azken hori da ohikoena, Recalderen esanetan, bestea 1941. urtean egin zuten baina abandonatuta geratzen joan da eta jada ez dago egoera onean.

Ezporogiko Moriones herriraino asfaltua dago, handik aurrera hartxintxarrezko bidea. Ez da dena hutsik geratu. Getadarren, gazteentzako aterpe bat dago, eta sarritan erabiltzen da, Recalde nabarmendu duenez.

«POBREAK BAINA ZORIONTSU»

Zertaz bizi ziren jakinda, zer-nola bizi ziren ikertu du Juan Jesus Recalde, lekukoen bizipenak bilduz. Nabarmendu

Lerro hauen gainean, Bizkaiaren mapa bat. Ondoan, oraindik zutik dauden etxeen eta elizaren hormak.
GAUR8

Getadar, Sabaiza, Arteta, Julio, Loia... Bizkaiako herriak desagertzen joan ziren 40ko hamarkadatik aurrera, Diputazioa lurak erosten eta basoak landatzen hasi zenean. Gaur egun, lursailak Nafarroako Baso Ondarearenak dira

Julio eta Loia jendez hustu ziren lehenak izan ziren, oso txikiak baitziren. Azken biztanleak Sabaizakoak izan ziren, lekuri jendetsuenetako bat. 50eko hamarkadan eskola desagertu eta azken biztanleak 1966 inguruan joan ziren

duenez, hangoa ez zen inondik inora bizimodu erraza, «oso gogorra» baizik. Anekdota ugari bildu ditu han bizi izan ziren lagunekin egindako elkarrizketetan, kasu batzuetan hiru orduko solasaldietan. Elkarrizketatuen artean, iaz zendu zen 102 urteko bizilaguna zegoen.

«Oso gauza bitxiak kontatzen zituzten, baina, oro har, maiz entzun dudak hausnarketa da oso pobreak zirela bai-

na oso zoriontsuak aldi berean», gogoratu du.

Izan ere, jende askok musika tresna bat jotzen zekiela azpimarratu du, gitarra nagusiki, eta horrekin lotuta Bizkaiako biztanleen artean zegoen beste berezitasun bat aipatu du: haien artean koplen bidez hitz egiten zuten, bat-batean botatako koplekin.

KOPLAK, GAUZAK KONTATZEKO

«Auzokide bati zerbait gertatzen bazitzaion, segituan horren koplak egiten zuten, baita ziria sartu ere askotan», kontatzen du. Ez zen arteetarako dohain bakarra herri isolatu haietan, poesia asko aurkitu baitu, koplak, kankak, bai eta artisautzako objektuak ere.

Errentan hartzen zituzten etxe eta lurrek herri batetik bestera eramaten bazituzten ere, mendeetan zehar ibarrean errotutako abizen ezagunak daukela dio ikertzaileak. «Armendariz, Orzanko, Indurain, Sola, Valencia eta oso



ezkontza horiek ondarea ekar zezakete-
la lehen aldiz familia batzuetara, hau
da bertako familiek ondareak lortzen
zituztela ezkontza horiekin. «Lursailak
eta etxeak zituen alarguna bazen
haientzat aukera bat zen lehen aldiz
ondasunak izateko», azaldu du.

ANESTESIA BARIK, KOÑAKA

Herriak garaiera handian zeuden eta
eskasak ziren garaiko garraiobideak;
komunikazioak ere ez ziren egokienak,
eta horrek ez zuen soilik bizimoduan
eragiten, era berean, osasun arazoak
zeudenean, gorriak ikusten zituzten.

Horren inguruan kontatu zioten pa-
sadizo bat ekarri du gogora. Itxuraz,
hango biztanle bat gaixotasun larri ba-
tek jota zegoela, medikuari deitu zio-
ten. Hil ala biziko kontua zela baiezza-
tuta, ebakuntza egin behar zioten
baina ezinezkoa zen gaixoa ospitalera
eramatea. Trantze hartan ebakuntza
etxean bertan egitea erabaki zuten.
Beste lau gizon izan ziren operazio har-
tan, bi besoak eusten, hankak geld-
i mantentzen beste biak. Herriko gaine-
rakoak etxeko atean, zer gertatuko
zain. Anestesia erabili beharrean koña-
ka eman zioten konortea galdu arte,
eta ebakuntza egiteko sukaldeko aitzo-
ak erabili zituen medikuak. Ebakuntza
amaitzean, herritarrek gizona zer mo-
duz zegoen galdetu zuten eta erantz-
una hau izan zen: «Medikuak ondo joan
dela esan du, aurrera aterako dela uste
duela, erremolatxa baten tamainako
tumore bat kendu dio bularretik».

Beste ebakuntza bat egon omen zen
Getadarren, eta alkohol lapiko bat jarri
behar izan omen zuten gela berotzeko,
izugarrizko hotza egiten baitzuen.

Hotz handiaren inguruko istorioak
ere sarritan agertzen direla dio Recal-
dek. Kontatu zion batek bost urteko
haurra zela ohean zegoen amamari
ohea egitera joaten omen zela bere ize-
ko baten laguntzarekin. Emakume za-
harraren ohe gainean izara handi bat
zegoen, kanpin denda baten antzera.
Elur bisutsa zebilen egunak ziren, etxe-
an ez zegoen sabai aizunik, eta elurra
etxe barruraino sartzen zen. Izara as-
tintzean, elurra ohe gainera erortzen



Lerro hauen ondoan, Bizkaiako
herritarren antzinako irudi bi. Goiko
argazkian, gitarrekin, koplak, poesia
eta kantak oso ohikoak izan baitziren
hango biztanleen artean.
GAUR8

autoktonoa den Zaratiegi abizena» ai-
patu ditu. Azken horretaz, gaineratu
du haran horretan sortu eta Zaratiegi-
ren deformazio bat dela.

Atentzioa eman dio, dioenez, inguru-
ko herrietako alargun ugari ibarreko
gazteekin ezkontzen zirela. Horrek, be-
re ustetan, bi irakurketa posible ditu,
antzina beharrezkoa zen ezkonsaria
berdintzeko agian gaztetasuna erabil-
tzen zutela, eta beste irakurketa bat da

**Inguru maldatsua zen, garaiera handikoa. Herri haietakoa
bizimodu gogorra zen. Abeltzaintzan eta nekazaritzan
aritzen ziren, baina hara ez ziren garapenaren aurrerapenak
heltzen, hotz handia, komunikazio txarrak...**

**Recalde ikertzailearen arabera, oso gutxirekin bizi zirela
baina oso zoriontsuak ere bazirela errepikatzen dute han
bizi ziren azkenek. Alaitasuna ere ez zen faltako, koplak,
kantak... egunerokoan botatzen baitzituzten**

zen. «Pentsa emakume hura zer tenperaturatan zegoen», nabarmendu du Recalde.

Isolamenduak, bestalde, beldurra eragiten zuen. 1936ko gerrarekin lotutako gertaerak bildu ditu ikertzaileak. «Han dena bizi zen era ezberdin batean». Mendian zeuden herritar batzuk preso hartu eta herrira eraman zituzten, batek ihes egin zuen eta berriz harrrapatu zuten, familiari agur esatera eramateko eskatu zuen eta Kasedara heldu zirenean tiro batez hil zuten. Lau seme-alaba zituen eta emaztea haurdun zegoen, gogoratu du Recalde.

Kontatu diote herrietan beldurra zabaldu zela. Hain beldur handia zuten, ezen hegazkin txiki bat zeruan bueltaka ikusi zuten egun batean, amak korrika hasi eta eskolan zeuden umeak ondoko zelai batera eraman baitzituzten; bertan etzanarazi eta arnasteko lastotxoak hartzeko esan omen zien maistrak, bonba itogarriak jaurtiko zituela pentsatzen baitzuen.

Beste batean, Getadar bonbardatu behar zutela zabaldu omen zen. «Nola bonbardatuko zuten lau lagun baino ez ziren eta?», adierazi du ikertzaileak, baina isolatutako herri haietan, ezohikoaren aurrean, kezka, beldurra, informazioz gabe... usteak erraz zabaltzen ziren.


Iluntze gorrixka zegoen egunetan, bere amak «gerra!» oihukatzen zuela kontatu zion beste elkarrizketatu batek. Antza denez, gerra hasi zen egunak horrelako arrats bat izan zuen, eta naturaren behaketa zuzenean bizi zen hango komunitatearentzat ez zen zaila naturaren seinalea eta gertaera lotzea eta biak lege bihurtzea, emakume hark egin zuen modura. «Era horretara, goizean enara ikusteak ziurtzoa zekarrela esaten zien, eta bazekiten eultzia haitzeratzeko egun aproposa izan zitekeela», dio Recalde.

HERRIEK JABEAK ZITUZTEN

Lurren jabegoari dagokionez, Bizkaia zituen berezitasunak aletu ditu Juan Jesus Recalde, herri haietan jabetza-
ren kudeaketak zenbait berezko ezau-
garri baitzituen. Zehazten duenez,



Bizkaiaiko herrietan hartutako argazkiak. Goiko irudian, haurrak eta nagusiak; ondokoan, haurrak etxe baten ondoan.
GAUR8



«Irangoten 30 auzokide kanpotarrek zuten jabetza, kooperatiba baten antzera, guztiak ziren jabeak eta bakoitzak bere partizipazioa zeukan. Urtean behin biltzen ziren San Migelen».

Gardalainen, aldiz, ezberdin funtzionatzen zuten, Azpilikuettarrak ziren jabeak eta, hala ere, ez zuten den-dena kudeatzen. Ia guztiaren jabeak baziren ere, belardien eta uren %50 baino ez

zeuzkaten, gainerakoa beste 40 auzokide kanpotarren jabegoa baitzen. Horrek, Recalderen esanetan, gatazka ugari ekarri zituen, eta heriotza bat ere izan zen borroka horiekin lotuta.

Ikertzailearen arabera, Nafarroan oso ohikoa da auzokide kanpotarren figura hori, alegia bizi ez ziren toki baten jabegoaren partizipazio bat izatea. «Normalean ondoko herrietakoak ziren,

baina bazen beste baldintza bat: kapareak izan behar zuten eta nekazariek ezin zuten estatus hori lortu».

Liburuarekin batera, hangoen bizipenak, istorioak, bizimodua, gertaerak eta abar gordetzeko zenbait ekimen dago martxan, azken bizilagunek eta ondorengoek bultzatuta. Izan ere, Bizkaia oroitzeko museo baten proiektuan ari dira lanean.



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:



OHOLTZARA BUELTA

Pandemiak emanaldiak eten zituen, baina antzerki munduan lanean segitu dute

O sasun krisiak krisi ekonomikoarekin eragin du, aurreko krisi ekonomikoarekin alderatuz.

baino latzagoa. Krisiak murrizketak dakartza berekin, jakina, eta murrizketak kultura arloan normalak dira, jakina... Jakina? Badirudi, zoritxarrez, onartu samar dagoela horrelako segida. Hortik kultura jarduerak zoko betegarri hutsa direla esatera, tarte txikia dago. Areago, ez da falta kultura eragileek ezer egin gabe bizi direla uste duenik.

Kultura, krisi guztietan bezala, sektorerik kaltetuenetakoa izan da, beraz, eta haren baitan, nabarmen, antzerkia. Hala ere, emanaldiak eta mugikortasuna etenda ere, arlo horretako jendea ez dago, ez pande-

 **KULTURA /** Xabier Izaga Gonzalez

Pandemiak gogor kolpatu ditu jendartearen osasuna, ekonomia, harremanak. Eta krisi guztietan bezala, kultura izan da sektorerik kaltetuenetakoa bat. Antzerkia ez da salbuespena izan; hala ere, emankizunak ez bezala, lana ez da eten eta datorren astean Aulestik Artedrama Euskal Laborategiaren XV. antzerki topaketak hartuko ditu.

mia baino lehen ez haren garaian ere, besoak uztartuta. Horren erakusgarri, Artedrama Euskal Laborategiak datorren astean Aulestin egingo dituen antzerki topaketak, edo asteen, Senperen, Huts Teatroaren eta Artedramaren obraren sortze prozesuari segida emateko egonaldia.

Joan den martxoaren 17an, Artedramako lagunek mezu hau zabaldu zuten: «Gu ere iragarrita genituen ekitaldi guztiak bertan behera utzi beharrean aurkitzen gara». Pandemia Euskal antzerkiarentzat eta oro har kulturaren inguruan lanean dihardutenentzat kolpe gogorra izango zela esan zuten, baita la-

Artedrama Euskal Laborategiaren aurtengo kartela. ARTEDRAMA

nean jarraituko zutela ere. Esan eta egin, atzeratuta baina ez berandu, lanak eginda datoz ostera: «Itzalean egindako lanaren uztia jasotzeko unea iritsi da».

ARTEDRAMA EUSKAL LABORATEGIA

Euskal antzerkiaren hitzordu garrantzitsuenetakoa ez zen ohi bezala udaberrian egin, baina datorren astelehenetik larunbatera bitartean Aulestik Artedrama Euskal Laborategiak antolatutako XV. topaketak hartuko ditu. Egileak eta ikusleak, aktoreak eta ikasi nahi dutenak ohi bezala programa oparo baten inguruan bilduko dira hamabosgarrenez arte eszenikotant euskaraz aritzen direnen topagunera.

“Zaldi Urdina” obraren emanaldiak bertan behera geratu ziren; hala ere, laster itzuliko da taulara Euskal Herriko hainbat lekutan, eta lehenik Aulestiko frontoian. Artedramaren, Axut! kolektiboaren eta Dejabu Panpin Laborategiaren lana datorren larunbatean emango dute. Hura bezala, egunero antzezlan bat ikusteko aukera izango da: Atx Teatroaren eskutik, “Tomiris”; Kamikaz Kolektiboaren eta Ttak Teatroaren “Matriuska”; Tripak Kolektiboaren “Urruna”, eta Tartearen Teatroaren “Tabernaria” eta “Ez dok hiru” obrak.

Halaber, eztabaidak, jakintza eta trukeak sustatzeko asmoz, bost ikastaro prestatu dituzte, guztiak euskaraz. Lerrook idazteko garaian haietan parte hartzeko plaza libre bakar bat baino ez zegoen.

IKASTAROAK

Ander Lipus aktore, ikertzaile eta Artedramako zuzendariak “Arnasa” izeneko ikastaroa emango du. Horrela laburbildu du berak: «Begiak, hitza, adi, zaindu arnasa... Oinak, jauzi, dantza, entzun arnasa... Eskuak,




oreka, indar, sentitu arnasa... Sena, hausnartu, jolastu, bizi arnasa... azken arnasa hartu arte».

Maika Etxekopar zuberotarrak “Jokorako bi kuadro” ikastaroa emango du. Ikasleei kuadro bi zabaltzeko asmoa du: «Lehenean, Iparraldeko antzerkiko ‘Herriko Bozak’ klasikoa ardatz, pertsonaia batetik bestera jauzi egingen dugu, pertsonaia estereotipoen arteko konbinazio desberdinak bilatuz, elkarren arteko harremanak pertsonaia bakoitzaz kontatzen duena landuz. Bigarrenean, giza neurriko txotxongiloen erabilpenaz jardungo gara».

Amancay Gaztañaga ekuadortarrak “Pertsonaia gorpuzten” izenburuko tailerra horrela aurkeztu du: «Baimenik ematen al diogu geure buruari sormenaren jolasean murgiltzeko? Maskaratik testuraino iritsiko den bidaia bat proposatzen dizuet. Bertan, pertsonaia bat sortu eta zintzotasunez gorpuzteko zerbait tresna landuko ditugu».

Ximun Fuchsek “Nori mintzo garen” izenburupean duen erronka haxe da: «Zein izango da gure antzerkia etorkizunean? Zerk egingo du euskaraz soilik erran ahalko dudala? Zein izango da dagokion forma? Poetika gaiak ekarriko digu. Talka zertan den identifikatu ondoren, estetika eta forma berez argituko zaigu. Nori mintzo naitaio?». Gaiak poetika ekarrita, estetika eta forma berez argituko direla dio. «Plazerez, jostalari, elkarlanean eta bata bestea aberastuz, gure istorioak kontatuz ditzagun».

Marina Suarezek, azkenik, “Gorputz imajinarioa eta materia biziak” izeneko ikastaroan arakatuko ditu gorputzak, materia biziak, materia bizigabee-kin, objektuekin eta espazioarekin dituen harremanak. «Harreman ezberdinetatik gor-



putzaren imajinarioa miatu, bertan espresio inkontzienteak aurkitzeko. Zentzugabea, ulertezina eta hortik sortzen diren poetikak praktikatu ditugu».

“Zaldi Urdina” ez bezala, “Gernikak” obra bertan behera utzi behar izan zuten eta momentuz «izoztuta» dago bonbardaketaren urteurrenean ematea aurreikusita zeukaten lana. Gernikako elkarteek antzerki handi bat egiteko eskatu zioten Lipusi, eta 300 lagunek parte hartuko zuten ikuskizuna prestatzen ari zen hura, baina ez daki noiz izango duten emateko aukera, «pandemiaren kontu honek azkenean ziurgabetasunera eramaten zaitu eta ez dakizu atzera, aurrera edo nora egin», diotso GAUR8ri.

«ATZERRIAN LURRA GARRATZ»

Bertan behera geratu zitzairen beste proiektu bati ere heldu berri diote. Huts Teatroaren eta Artedramaren “Atzerrian lurra garratz” obraren sortze proze-

«Zaldi Urdina» Aulestin emango da larunbatean, eta ondoren pandemiak etendako birari helduko dio berriro. ARTEDRAMA

sua osatzen jarraitzeko egondia egin dute aste honetan Senperen. Laura Penagosek emango dio bizia pertsonaia nagusiari, Euskal Herrian bizi den artista kolonbiar Aurora Morari, hain zuzen. Komunitate indigena batetik etorria, haren «ezinegonak» kontatuko ditu obrak Amancay Gaztañagaren zuzendaritzapean. Gela batean, haren amets eta amesgaiztoak agertuko dira. Ander Lipus hainbat pertsonaiaren larruan sartuko da: Auroraren ahizparenean, amarenean, amona indi-

Egileak eta ikusleak, aktoreak eta ikasi nahi dutenak programa oparo baten inguruan bilduko dira hamabosgarrenez arte eszenikoetan euskaraz aritzen direnen topagunera

Atx Teatroak, Kamikaz Kolektiboak, Ttak Teatroak, Tripak Kolektiboak, Tartean Teatroak, Artedramak, Axut! kolektiboak eta Dejabu Panpin Laborategiak sei obra emango dituzte

genarenean, nafar mutil lagunarenean... Senpereko hori obra gorpuzteko laugarren egondia dute, Hendaian, Gernikan eta Berrizen bana egin ostean. Hurrengoa, azaroan, Biarritzen izango da eta azken hilabetea Luhuson emango dute, otsailan hango Harri Xuri gelan izango baita estreinaldia.

Gai ugari biltzen ditu obrak, hala nola kolonialismoa eta indigenismoa, emakume migranteek Euskal Herrian bizitzen duten egoera, zaintzaren inguruko gogoetak, migranteen lan baldintzak, ikasi duten esparruan lan egiteko aukerarik eza, Kolonbiatik kontu politikoengatik ihesean doazenak... «Jendeari iritsiko zaizkion gaiak, nik uste», dio Lipusek, «eta, interesgarriena, benetako kolonbiar aktore bat dela. Euskaraz ikasi du eta haren bizipenetatik abiatuz fikziozko istorio bat kontatzera iritsi gara». Proiektuan Miren Amurizak, Ibon RGk, Arantza Floresek eta Barbara Rasok ere parte hartuko dute, obra taularatzeko lanetan.

Oholtzara bueltan, publiko aldetik oso harrera ona izango dutela uste du Lipusek: «Izugarritzko arrakasta izaten dugu eta orain ere hala izatea espero dugu, betiere protokoloari jarraituz. Badago halako espiritu bat, ‘kutsatzekotan, kutsa gaitetzen antzerkiaz’ dioena. Kutsa gaitetzen kulturaz. Badago antzerkira joateko aukera, egiten ari garena ez da zerbait eroa». Sei hilabete daramatza berak «ezer egin gabe», dena bulegoko lanak, eta horren ostean, datorren astean zapalduko du antzoki bat lehen aldiz. «30 urte daramatzat antzerkia egiten eta ez naiz inoiz hainbeste denbora egon areto bat zapaldu gabe». Orain gogotsu daudela dio, «jendeari eskaintzeko eta egiten dakigun horri ekiteko».

ZAPATA BERRIAK JANTZITA, ASTIGARRAGA KULTURAREN MAPAN KOKATZEKO

Joan den asteburuan Erribera kulturgunea inauguratu zuten Astigarragan. Ohiko inaugurazio ekitaldi bat baino askoz gehiago izan zen, ordea. Herriko kultur ekipamendu berriarekin batera “Zapata Berriak” egitasmoa abiatu zuen Hika Teatroak Udalarekin elkarlanean. Programa erakargarri bezain askotarikoa osatu zuten.

Larunbatean kulturgune berriari ongietorria egin zioten, baita zaharrari agur esan ere, horregatik antolatu zuten Kontxaenean ekitaldi txiki bat. Herritarrek zapata zaharrak jantzita joan ziren bertara, horiek kendu eta berriak jantzi zituzten, zaharrak Kontxaenean utzita, gune hura izan denaren lekuko.

Egitasmoaren helburuak honela laburbildu zituzten: «Kultura sormena erdigunera ekartzea; ekipamendu berria sorgune, elkargune, eztabaidagune bilakatzea; publiko berriak sortu eta fidelizatu; herritarrek sormen prozesuetara gerturatu, eta kohesio soziala hobetu eta pertinentzia sentimendua indartu komunitateko kideen artean, eta baita komunitatearen eta sortzaile eta artisten artean ere».

Teresa Sala Hika Teatroko kideak GAUR8ri azaldu dionez, astigartarren parte hartze itzela lortu dute. Udan zehar astigartar guztiei postal bat bidali zieten, eurek beste postal batean idatziz edo marrazkiz kultur etxe zaharrari beren agurra bidaltzeko, baita kulturgune berriari ongietorria ere. Jasotako postal guztiak Xabier Mujika eszenografoak eta Iñigo Telleria artista sonoroak sortu duten instalazio sonoroan daude; izan ere, idatzitako esaldi guztiekin, sentsazioekin, sentimenduekin grabatutako mezuak entzungai daude erakusketan. Astigartarren erantzuna ikaragarria izan da: 4.000 postalek osatzen dute instalazioa. Bide batez, esan beharra dago instalazio hori urriaren 10era

arte egongo dela ikusgai Erriberan.

Horrez gain, ikus-entzunezko pieza bat sortu dute, 40 minutuko dokumentala. “Astigarraga” eta “kultura” hitzen arteko harremanari buruz, 40 astigartarren iritziak biltzen ditu. Askotariko adin eta profiletako herritarrei galdetu diete beraientzat kultura zer den, eta ea hamar urte barru Astigarraga kulturaren mapan kokatua ikusten duten. Dokumentala inaugurazio ekitaldian estreinatu zen.

Bestetik, Pau Figueres artista bisualak Erribera kultur ekipamendu berriko horma bat artelan bihurtu du, eta Agin Laburu astigartar bertsolari ezagunak “Erribera” kantuari letra berria egin dio, lehen aldiz inaugurazio ekitaldian abestu zutena.

Halaber, postalak bidali zituztenen artean prestatutako ibilbide artistiko

bitan parte hartzeko aukera zozkatu zuten, betiere covid-19a dela-eta edukiera oso mugatuta dagoela kontuan izanda.

Asteburu osoko ekimen erakargarri eta oparoaren ondoren, Hika Teatroko kide Teresa Sala pozik ageri da: «Oso polita izan zen. Herri partaidetza sustatu nahi genuen. Hika Teatroan sinetsita gaude kultura ez dela publikoarentzat sortu behar, publikoarekin baizik. Nahi genuen eta lortu dugu herriak parte hartzea eta profesionalak elkartzea: herriko eragileak, dantza taldeak, txistulari taldea, Agin Laburu bertsolaria eta musikari profesionalak».

Salak dioenez, Astigarragak bikoiztu egin du azken urteetan bere biztanleria. «Astigartar berrien artean badaude, esate baterako, Inma

Aranburo Orkestra Sinfonikoko biolinista, Xabier Mendiguren eta Alaine Agirre idazleak... eta horiek guztiek ere parte hartu dute». Hartara, ekimen horrek betiko astigartarrek eta berriek elkar ezagutzeko ere balio izan duela dio.

Bi eguneko ekimen potoloa, hilabeteko erakusketa edo instalazioa... baina zerbait gehiago ere bada Erribera Astigarragako kulturgune berria abiatzearekin batera lortu dena: herrian dagoen kulturarekiko sentsibiltatea islatzea. «Astigartarrek asko eskertu zuten beraiei galdetzea. Kulturarekiko sentsibiltatea piztu da, seguru», dio Teresa Salak.

Hika Teatroak zapata berriak jantzi eta Astigarraga kulturaren mapan kokatzeko lehen urratsa egin du.



Agin Laburu bertsolariak «Erribera» kantuari letra berria abestu zituzten kulturgune berrian. PASTAIN



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Guztiok gorroto dugu Thatcher, baina ez da nahikoa

Aurreko kurtsoan «Pride» (Matthew Warchus, 2014) filma jarri nuen gelan. Behin eta berriro ikusia dudana arren, begiek diz-diz egiten didate oraindik zintaren pasarte batzuetan. Margaret Thatcherrek bakarrik lor zezakeen Londresko aktibista homosexualen eta Galesko meatzari komunitateen arteko elkartasun sarea eratzea. Lehen ministroari horiek guztiak zioten gorrotoa elkartasunaren oinarrietako bat izan zen. Guztiei eragiten zien gobernu hark zuen ikuspegi erabat klasistak eta kontserbadoreak. Irlandar-amerikar batzuek ere kanta bat eskaini zioten, «*the eyes of the IRA, they are upon you, oh Maggie Thatcher dear...*». Baita Baldin Bada euskal taldeak ere: «Tatxer andrea, xxxxxkumea».

Thatcher azken finean fanatiko zen. Egia esan, hari buruzko *biopic*-a ikusi nuenean, Meryl Streep-ek ederki antzeztutako «The Iron Lady» (Phyllida Lloyd, 2011), nolabaiteko errespetua ere hartu nion. Hori konbentzimendua zuena bere ideiekiko. Esango nuke jendea benetan amorrarazten zuena Thatcherrek zuen konbentzimendu hura zela. Izan ere, ez zion inolako errespeturik adierazten bere ideologiatik kanpo zegoen edozeri eta edonori. Protesta egiten zuten guztiak erabat oker omen zeuden, historiaren kontra ari ziren. Paradoxikoki, soluzio bakarra kontserbadorea omen zen, zegoen sistema zen aukera bakarra, eta gainera, sindikalistek hamarkada luzeetan sistema horri jarritako oztopoak kentzea zen lehentasuna. Historia XIX. mendearen bigarren zatiko eredu kapitalistan hasi eta bukatzen zen.

Baina Thatcherrek ez zituen bere jarraitzaileak bakarrik txunditzen, ezkerreko alderdiak eta orotariko aktibista disidenteak ere erabat txundituta geratu ziren. Thatcherren pertsonaiak sortzen zuen gorroto-lilurak ekidin zuen beste gizarte proiektu bat azaleratzea. Laborismoak egin ahal izan

zuen bakarra hirugarren bidearen erretorika antzu hura izan zen. Eta ikuspegi eraldatzaileak erabat minoritario bihurtu ziren denbora luzez.

Esango nuke azken hilabeteetan Eusko Jaurlaritzarekin eta EAJrekin antzeko zerbait gertatzen ari zaigula. Liluratu gaizka beraiei konbentzimendu kontserbadoreak eta neoliberalak. Langileekiko eta oro har herritarreki-ko agertzen duten erdeinuak eta klasismoak. Komunikabide

gehienek Urkullu bezalako pertsonaia gris eta siniestro baten inguruan sortu duten aura jainkotiarra sinestezina egiten zaigu. Harrigarria egiten zaigu eskoletan dena ahalik eta ondoen antolatzea besterik nahi ez dugun langileoi arduragabe deitzea eta erantzutea nahi dugun bakarra hezkuntza komunitatean tentsioa sortzea dela.

Itsututa geratzeko arrisku handia dugu. EAJren eguzkiaren atzean, egon badago askoz gehiago eta ezin dugu erori Eusko Jaurlaritzaren gu ala arduragabekeria dikotomian. Nahiz eta zoragarria den, estetikoki, urte gutxi barru Arantza Tapia gure Thatcher euskaldun propioa bihurtzeko aukera. Nire barnean zerbait esaten dit ikusi nahi dudala euskal enpresarien bozera-maile fanatiko bat Eusko Jaurlaritzaren buru. Ni ere liluratzen hasita nago eta, hain zuzen ere, hori da eki-

din behar duguna. Ramon Solak egunkari honetan uztailaren 20an argitaratutako hausnarketa oso interesgarria izan zen: gogoratzen garaiezina zirudien Barcinarekin? Zein ezberdina den Nafarroako giroa urte gutxiaren ostean? Oso zaila izango da baina Barcina eta Maroto botatzea lortu bagenuen, ziur asmatuko dugula oraingoan ere. •



JONBI EGURTZEGI

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Okupa

Kontatu didatenez, ezagun baten lehengusuren ikaskide ohiari gertatu zitzaion oporretara joan zela eta itzultzerakoan okupa batzuk sartu zitzaizkiola bere etxean. Orain ezin ditu etxetik kanporatu eta bera gurasoen etxera itzuli da. Zertarako hipoteka bat ordaindu? Merkeago ateratzen da etxebizitza bat okupatzea. Gezurra da, noski, dena asmatu dut, telebistan, irrati eta sare sozialetan egiten ari diren bezala.

Belaunaldi honek ezagutu duen krisialdirik handienaren erdian, zerbitzu publikoak arriskuan dauden honetan, azken hilabeteen komunikabide eta sare sozialen kezka nagusia bilakatu da okupazioa. Baina, gerta dakiguke gure etxea okupatzea? Berez datuek ez dute hori esaten, errealtatea etxebizitza sozialaren falta eta etxebizitza eskuratzeko bermerik eza da. Berez, gerta daiteke beharra duten pertsonen etxebizitza okupatzea, baina, oro har, etxebizitza hutsak edo abandonatuak dira, eta bankuen edo finantza etxeren esku daudenak, ez partikularren etxeak. Horrela esaten dute gaiaren inguruan adituak diren epaile eta abokatuek. Zer ari da gertatzen orduan? Mekanismoak honakoa dirudi: covid-19aren krisiak iragartzten duen bezala, bankuek dagoeneko badute susmoa jende asko larri ibiliko dela bere hipoteka ordaintzeko; horrenbestez, legea gogortu nahi dute baliabiderik gabe geratzen diren familien kaleratzea errazteko; beraz, euren interesekin lerrokatuak dauden komunikabideak martxan jarri dituzte, okupazioaren inguruko alarma soziala pizteko; horrela, zuk, etxea ordaintzen amaitu gabe duzun horrek edo alokairuan bizi zaren horrek, kanpaina erosten diezu komunikabideei; hala, alerta sozialaren aurrean, legea aldatzen dute, etxegabetzeak errazteko; zu, alarma irentsi zenuen hori eta “Desokupa”-koak defendatu dituzun pertsona bera, langabezia geratuko zara, ezingo duzu hipoteka ordaindu eta lege berriari esker etxegabetu egingo zaituzte; azkenik, zuk eta zure familiak non bizi izan de-

zazuen, bankuek espekulatzeko hutsik dituzten milaka etxeetatik bat okupatuko duzu; eta asmatu orduan zer? «Tok, tok!», Desokupakoak dira zure atea jotzen.

Kanpaina horren atzean, etxegabetzeak errazteko legea aldatzeaz gain, nire susmoa da etxebizitzaren kontzeptua bera ulertzeko bi ikuspuntuak dabilzala borrokan; lehenik eta behin, ikuspegi kapitalista, etxebizitzan salerosketarako, espekulaziorako eta aberasteko bitarteko bat ikusten duena; eta, bestetik, ikuspuntu soziala, etxebizitza lehen mailako premia gisa ikusten duena. Niretzat, ezagutzen ditudan gainerako langileentzat bezala, etxea zaintzarako eta elkarbizitzarako espazioa da, bertan eraikitzen dira harremanak eta bizilagunen arteko loturak ere. Behar bat da, noski, lehen mailako beharra.

Koronabirusaren eta konfinamenduaren krisiak agerian utzi ditu etxebizitza merkatuaren miseriak, gaur

Okupazioaren kontrako legea gogortu edo etxegabetzea errazteko legea indartu ordez, etxebizitzaren jabetza eta alokairuaren prezioak arautu beharko lirateke

egun oraindik herritar askok dituzten gabezia larriak ere ikusi ditugu; horretan ere bagaude pribilegiatuak langileen artean, batzuk espaziorik gabe, osasun neurriarik gabe bizi behar izan dutelako egoera latz hau. Okupazioaren kontrako legea gogortu eta etxegabetzea errazteko legea indartu beharrean, etxebizitzaren jabetza eta alokairuaren prezioak arautu beharko lirateke. Are gehiago, bizitzeko, eta ez espekulatzeko diren etxebizitza guztien gutxieneko kalitatea bermatuko lukeen legea, espazioari eta osasungarritasunari dagokienez, egin beharko litzateke. Baina ez, jarrai dezagun pentsatzen ogia erostetik bueltan gure etxean aurkituko ditugunak okupak izanen direla eta ez direla izanen poliziak, bankuaren salaketaren ondorioz epailearen autoa eskuetan dutela. •

P atxadatik eta kritiko begiratzten dio ikasturte hasiera honi Amelia Barquinek. Ikasturte berezia izango da eta «ahal dena» egitea izango da derrigorrezko araua. “Ahal den” horrek behar duen hausnarketa eta baliabide dosian dago gakoa. Birusak zer egingo duen ezin da ez jakin ez bideratu, baina beste gauza asko bai.

Aurrekoan, bi urteko iloba, telefonoz ari zen zapatila bellarrian jarrita. «Zeinekin ari zara?», galdetu nion. «Koronabirusarekin», esan zidan. Inoizko egoerarik aldrebesena bizitzea egokitzen ari zaie. Behar adina konturatzen al gara horrekin?

Gertatzen ari dena sekulako eragina izaten ari da ez bakarrik nagusiengan, baita txikiengan ere. Kontua da haiek ez dutela hitzez adierazten segur aski guk egingo genukeen bezala. Ez dakigu noraino eragiten dien, zer dakiten, dakiten hori nondik datorren, zer sentitzen duten horrekin... baina garbi dago haiengan eragiten ari dela. Gainera, inguru batzuetan eta familia batzuetan segur aski umeekin hitz egiten da gertatzen ari denaren inguruan, baina beste batzuetan agian ez horren argi eta umee dakitena da helduen arteko elkarriketetatik datorrena, irratan edo telebistan entzuten dutena...

Horregatik pentsatzen dut eskolan horretarako esku hartze propioak egin behar direla, umeekin gertatzen ari zaiguna lantzeko. Horretaz hitz egitea garrantzitsua da, dituzten kezak lantzea, eta akaso ez hitzekin soilik, eskulanean bidez, dinamika desberdinen bidez...



Askotan haurrak eskolara iristean agindu eta argibide sorta bat bakarrik jasotzen dute: iristean ilaran jarriko zarete, distantzia gorde zuen artean, denok maskararekin, eskuak garbituko ditugu... Argibideez eta aginduez gain, zer ari gara partekatzen haurrekin? Adinaren arabera, hori landu beharko litzateke.

Haurren behar emozionalak erdigunean jarriko direla esan da han eta hemen. Horretarako curriculumetik mugitu behar da, ezta? Erronka galanta dute irakasleek.

Lehen ere bazen erronka bat curriculumetik apur bat askatzea. Izan ere, ikerlari eta pentsalari batzuk azaldu dute curriculumuma batzuetan hezkuntzaren arerioa dela. Curriculumari jarraitzeagatik eta hura bukatzeagatik zenbat gauza uzten ote dituzten bazterrean irakasleek; sortzen diren gaiak, kezak, beste interes batzuk... Horiei ezin zaie erreparatu curriculumarekin jarraitu behar delako eta hori izan da nolabait irakasleok izan dugun katea.

Nik uste dut momentu honetan gero eta kontzientzia handiagoa dagoela. Curriculumuma garrantzitsua izan daiteke eta hor dago jarraitu litekeen proposamen bat, baina malgutasuna behar da. Testuinguruak eta gertatzen zaigunak baldintzatzen du gure prozesua eta curriculumari ezin diogu jarraitu lehen jarraitzen genion bezala. Lehen ere ez genuen egiten, baina orain garbi geratu da zein lehentasun pasatu diren lehen lerrora. Irakasle batzuk malgutzen ari dira zentzu horretan, besteak beste, momentu honetan ezin delako besterik egin. Halabeharrez.

«Ziurgabetasuna nolabait onartu behar dugu, baina covid-19ak eragindakoa, ez aurreikuspen faltak edo baldintza eskasiak sortutakoa»

Halabeharrez, era berean, irakasle batzuk ari dira teknologiarantz gerturatzen. Lehen irakasle batzuk erresistenteak ziren teknologiarekiko, erresistentzia pasiboa eta batzuetan aktiboa bazegoen, eta orain halabeharrez ikasten eta erabiltzen ari dira eta ikusten ari dira zein tresna interesgarriak dauden. Hori bai, ñabardurekin.

Ikasturte berezia izango da zalantzarik gabe.

Ikasturte honetan “ahal duguna” egingo dugu eta ez gaitez urduri jarri. Lehentasunak une honetan profilaktikoak dira. Lehentasun nagusia ez gaixotzea da. Osasun fisikoa eta emozionala zaintzea da lehentasuna. Hortik aurrera, ahal duguna egingo dugu.

Ñabardurak aipatu dituzu.

Bai. Teknologiaren erabilera lehen ere bazen eztabaidatua. Orain eztabaida apur bat alboratu egin da, baina berreskuratzea egin beharko da. Adibidez, Chromebooka edo ikastetxeko ordenagailua, ikasleek etxera eramaten dutena. Hori hedatzen ari da eta gertatzen ari zaigunaren ondorioz, Chromebookaren zabalkundeak indarra hartuko du. Baina lehendik zegoen eztabaidak hor jarraitzen du eta ez genuke ahaztu behar. Umeari, gazteari, Internet daukan tresna bat ematen diogu eta badakigu horrek esan nahi duela mendekotasuna sortzeko prestatuak dauden edukietan sartuko dela, bere adinerako egokiak ez diren edukietan, desegokiak iruditzen zaizkigunetan... Lehen, adibidez telefono mugikorrekin irizpide batzuk baldin bazeuden etxean, orain etorri zaigu beste gailu pantailadun bat, Internet daukana, eta eskolako tresna dena. Beraz, irizpi-

deak ezartzea oso zaila da. Eta ikastetxeetatik ez dago irizpiderik familientzat. Familiei, bat-batean, eskolako tresna bat sartzen zaie etxean eta ez dakite horren erabilera nola mugatu, nola arautu. Eta ikusten dute haur batzuek egun osoa tresna horren gainean ematen dutela. «Zertan ari zara» galdu eta «etxerako lanak egiten» erantzuten dute. Eta badakigu beste zerbaitean ari direla.

Chromebooka zabaltzeko prozesua martxan da, baina horren aurreko erakundearen ebaluazioa falta da. Nola ari da erabiltzen tresna hori? Zeintzuk dira albo ondorioak? Eztabaida hori lehen ere bazegoen eta orain moteldu egin da, teknologia behar dugulako bai ala bai. Eztabaidak mailakatzeko ari dira eta hori orain ez da lehentasunekoa, badirudi ez dela tokatzen. Baina eztabaida hori egiteko dago.

Eta Chromebooka Googleren tresna bat da.

Eztabaida hori ere hor dago. Zergatik utzi behar ditugu gure umeak Googleren eskutik? Googlek gehiago daki gure haur eta gaztetxoez haiek bere buruaz baino. Informazio hori nola erabiliko du epe motzean eta epe ertainean? Hori ez dakigu. Hori gerta daiteke hezkuntza komunitatean aurretik eztabaidatu gabe?

Guraso batzuk intsumisoak dira, ez dute Chromebook hori erosi nahi eta ikastetxeetan teknologia arduradunek gaizki hartzen dute guraso horien kezka, proposamena, intsumisioa. Baina horri buruz hitz egin beharra dago. Zergatik gaude behartuak familiak Googleren tresna bat erostera, gure haurren inguruko informazio guztia enpresa baten eskutik uztera?

Itxialdia da eragotzi nahi den egoera. Egoera horretan are gehiago nabarmentzen dira desberdintasun sozioekonomikoak, ezta? Batzuk eskulaneekin eta bizkotxoekin estresatuta eta beste batzuk konexiorik gabe.

Tira, edo ordenagailu bakarra eta lau seme-alaba. Edo konexibitatea, baina ez oso eragin korra. Etxe batzuetan ikasteko leku bat falta zaie haurrei. Badakigu familia batzuk txiro energetikoak direla. Ez da bakarrik ez daukatela Internet, ez daukate argindarrik. Gainera, eskolak haur batzuei hezkuntzarako aukerak emateaz gain, otordu sendo bat ematen die. Eta baita etxetik ateratzeko aukera eta baliabide batzuk.

Muturreko egoera honetan irakasle batzuk ikasle batzuekin harremanetan jarri direnean konturatu dira etxe batzuetan ez dagoela paperik. Arazoa ez da ez dagoela liburutik, baizik eta ez dagoela paperik idazteko, ez dagoela margorik, ez dagoela jostailurik. Asko arduratu gara familia batzuetara ordenagailua eramaten eta konexibitatea ziurtatzen, baina premiak askoz oinarritzekoagoak ziren. Jostailuak, paperak, marrazkiak, margoak eta abar falta ziren. Ez ote zen prestatu behar pakete bat etxe horietara eramateko? Premiak askotan oso larriak dira.

Eta, noski, haur horiek eskolara iristen dira eta baliabide asko dauden toki bat aurkitzen dute: margoak, ipuinak, musika tresnak... Etxeetan zer dago? Telebista. Ados, baina horrez gain etxe batzuetan baliabide asko daude eta beste batzuetan oso gutxi. Lehen ere hori horrela zen, baina orain denok etxean geratu behar badugu eta dauzkagun tresnekin bakarrik moldatu behar badu-

AMELIA BARQUIN
LOPEZ

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO
HUHEZIKO IRAKASLEA

Hezkuntzaren, euskararen,
feminismoaren, kulturartekotasunaren,
gorputzaren... gainean ibiltzen da, patxada
zorrotzarekin. Ikasturtea hasi berritan,
hezkuntzak bizi duen egoerari begiratzeko
toki onak dira horiek denak.

Amagoia Mujika Telleria

«Trebakuntza telematikoaren antzera, oraindik irakasle batzuek ikasi egin behar dute hobeto ikusten zein den gure ikasleen egoera ekonomiko eta soziala. Eta une honetan bereziki»



gu, batzuentzat desabantaila izugarria da.

Irakasleak ikusi behar ditu desabantaila horiek, ezta?

Irakasle batzuk sentsibiltate handia daukate gaiarekiko. Injustizia sozialak eragindako desabantaila sozioekonomikoak hor daude, irakasle batzuek sentiberatasun berezia daukate eta saiatzen dira horri erantzuna ematen hainbat modutara. Adibidez, materiala erosi behar denean, etxerako lanak proposatzen dituztenean... oso kontziente dira zer-nolako ikasleak dauzkaten eta zein egoera dagoen etxeetan. Eta horren arabera diseinatzen dituzte beren esku hartzeak.

Baina beste batzuek oraindik ikasi egin behar dute hori. Trebakuntza telematikoaren antzera, oraindik irakasle batzuek ikasi egin behar dute hobeto ikusten zein den gure ikasleen egoera ekonomiko

eta soziala. Eta une honetan bereziki.

Desabantailan dauden ikasle horiek ahalegin handiagoa eskatzen dute. Zure ikasgelan ikasle guztiak klase ertainekoak baldin badira, Whatsapp taldera bidaltzen duzu non konektatu behar duten eta kito. Baina hori gertatzen ez denean, irakaslearen ahalegina askoz handiagoa da; ikasle horiengana nola iritsi pentsatu behar du, nola lagundu behar dien baliabideak lortzen.

Irakasleen egoera oso desberdina da zentzu horretan, batzuek ez dituztelako desabantailan dauden ikasleak eta beste batzuk asko dituztelako. Eta, gero, irakasleen artean sentiberatasuna eta kontzientzia maila desberdinak daude. Hori landu egin behar da eta ikusten dut irakasle ikasketetan gure egin-kizunetako bat kontzientzia hori piztea dela.

Ikastetxetik ikastetxera alde handia baitago.

Ikastetxeen arteko desberdintasunak hor daude. Guk badakigu EAEko eskoletan dagoen arazoetako bat jatorriaren eta egoera ekonomikoaren araberrako segregazioa dela. Pobreak eta atzerritarrak ikastetxe batzuetan metatzen dira eta beste batzuetan ez daude; horietan ikasle autoktonoak, zuriak eta klase ertainekoak bakarrik daude.

Egoera horren aurrean, eskola batzuetan irakasleek egin behar duten ahalegina askoz handiagoa da. Adibidez, bekak jasotzen dituzten familiei itzuli egin zaie diru hori eta horretarako eskoletako zuzendaritzako kideak paperak egiten aritu dira. Ikastetxe batzuetan jantokiko 500 bekadun dituzte, beste batzuek hiru dituzte, beste batzuetan ez dago bat bera ere... Administrazioak zer sentiberatasun dauka desabantaila ho-

rren aurrean? Irakasle batzuek daukaten lana askoz potoloa goa da beste batzuen bano, desabantaila sozioekonomikoarekin lan egiten dutelako.

Gabeziei erreparatuta, etxe batzuetan ez dago euskararik. Hor ere hutsunea gertatu da.

Haur askok euskararekin daukaten kontaktu bakarra eskolan eta ikasgela barruan bakarrik gertatzen da. Batzuetan, ezta jolasgaraian ere. Ez da errealitate desiratua, baina toki askotan gertatzen dena hori da. Harremana murriztu zen itxialdian eta euskara umearengana hurbiltzeko modua telematikoa bihurtu zen. Denbora gutxiago, edukietan zentratua, ikasleen arteko harremana ez da hain dinamikoa.... Egoera horretan sendotu egiten da euskararen eta eduki akademikoaren arteko harremana. Euskara berdinean eskolako edukiak eragiketa indartu egi-

ten da eta euskarari ez dator- kio ondo eragiketa hori. Beti detektatu den ahulgune bat hori izan da, euskara bizitza akademikoarekin bakarrik lotzea. Itxialdian hori gertatu da.

Espero genuen uda garai ona izan zitekeela euskarari bizitasuna emateko, udalekuekin eta aisialdiko eskaintzarekin. Baina uda ere gorabeheratsua izan da. Udalekuak bertan behera geratu dira beldurragatik eta prebentzioagatik. Egia da haur batzuek euskararekin daukaten harreman bakarra akademikoa dela. Baina, zorionez, beste batzuek badituzte bestelako loturak, aisialdiarekin, kirolarekin... Baina hori ere kolokan dago une honetan. Itxialdiarekin garbi geratu da lehendik ahul zegoena ahuldu egin dela eta euskararekin gauza bera gertatu da, kalte egin dio egoerak.

Egia da, hala ere, ekimen politak sortu direla eta euskalgin-

«Nik uste dut espero zela konfinamendu zehatzak egongo zirela, taldeenak.

Nik bai espero nuen abuztuan gehiago prestatu izana administrazioaren aldetik. Eta hori sentsazio partekatua da hezkuntzaren munduan, ez dela asko prestatu ikasturte hasiera»

tzaren mundua sormen handikoa dela eta asmatu dituela bi-deak. Baina, zalantzarik gabe, euskarari kalte handia egin zaio eta hemendik ateratzen garenean ondo pentsatu behar da nola konpentsatu galdu-takoa. Hurrengo fasean sartzen garenean euskara aisialdiare-kin eta harremanekin lotzen duten ekimenak bultzatzea de-rriorrezkoa izango da.

Bueltatu gara eskolara. Gutxi edo gehiago, esperotakoa, ez-ta? Irakasleen kexak baliabi-de faltagatik eta egunero itxi dituzten zentroen zerrenda.

Nik uste dut espero zela konfi-namendu zehatzak egongo zi-rela, taldeenak. Nik bai espero nuen abuztuan gehiago pres-tatu izana administrazioaren aldetik. Eta hori sentsazio par-tekatua da hezkuntzaren munduan, ez dela asko presta-tu ikasturte hasiera. Kasuisti-ka zein izan zitekeen eta nola erantzun pentsatu behar zen.

Horrez gain, ikasturte hasie-ran irakasle batzuk gaixotu egin dira, besteak beste covid-19arekin, eta bajak ordezkatzeko sistemak ez zuen funtzio-natzen. Zentro askotan ordezkorik gabe egon dira.

Ikasturte hasiera gogorra izan da. Ziurgabetasuna nola-bait onartu behar dugu, baina covid-19ak eragindakoa dene-an, ez aurreikuspen faltagatik edo baldintza eskasiagatik da-torrena. Ikasturtea hasteko prestatze maila agian baxua izan da. Desiragarria zen apur bat gehiago prestatu izana.

Irakasleei gurasoen galdera pila bat iritsi zaizkie eta gal-dera gehienak ezin izan di-tuzte beraiek erantzun.

Bai, eta hori gertatzen ari da irakaskuntzan eta osasungin-tzan, eta gure sistemaren oina-

rriak dira. Hor arduradunak egon behar dira pentsatzen, eztabaidatzen, zehazten, era-bakitzen.... Zehaztapenak falta dira eta baita baliabideak ere.

Huhezin etorkizuneko ira-kasleak hezten dituzue. Ho-netatik ere ikasiko zen zer-bait, egoerak sortuko zuen gogoetarik irakaskuntzaren egoeraren eta erronken ingu-ruan.

Bai, zalantzarik gabe. Gure ikasgaietan gai horiei buruz hitz egin da eta gai horiek lan-du dira. Besteak beste gure ikasleei ere egokitu zaielako egun batetik bestera etxean sartzea eta ordura arte aurrez aurrekoak ziren ikasgaiak onli-ne jasotzea. Fakultatean seku-lako ahalegina egin dugu, bai-na egia da ez garela zerotik abiatu. Hemen hainbat ikaske-

ta online eskaintzen dira, pres-takuntza hori badaukagu eta jarrera ere bai. Teknologiari irekiak gaude eta ez dugu erre-sistentziarik sortzen; kritikoak gara, presentzialaren aldeko-ak, baina tresna telematikoak erabiltzearen aldekoak era be-rean.

Ikasturtea prestatu dugu edozein unetan berriz konfi-natzen bagaituzte etxetik la-nean jarraitu ahal izateko.

Aurrez aurrekorako presta-tzen denak ezin du bere ho-rretan telematikorako balio, ezta?


Kualitatiboki desberdina da, komunikazioaren izaera alda-tu egiten da. Gure klaseak ez dira klase magistralak, non irakasleak luze hitz egiten duen eta ikasleak entzun egi-ten duen. Horregatik ez dauka

zentzurik gure klaseetan ka-mera bat jartzea ikasle ba-tzuek hori etxetik jarraitzeko. Ikasleek taldeka egiten dituzte proiektuak eta hori antolatu behar da etxetik ere egin ahal izateko.

Bestetik, nik garbi daukat ikaskuntza telematikoan orde-nagailua ezin dela testuen bil-tegi bat izan. Batzuetan ikasle-ek liburua izan beharrean liburua ordenagailuan dauka-te, baina metodologia bera da. Ikaslea heltzen da etxera eta testua inprimatzen du, buruz ikasi behar duelako eta horre-tarako egokiago delako pape-rean edukitzea azpimarratu eta markatu ahal izateko. Or-duan, zein funtzio dauka orde-nagailuak? Zer da, testuen bil-tegi bat? Ba horretarako ez da ordenagailua behar, askoz ho-bea da liburua. Oraindik urrats batzuk egin behar ditu-gu. Baina Huhezin ez da hori gertatzen, aspaldidanik ari baikara tresna telematikoak erabiltzen.

Distantziak, maskarak, bur-builak, gelak. Aurrez aurreko hezkuntza bai, baina baldin-tzatua.

Bai, eta galera handia da. Kon-taktu fisikoa ezin da ordezkatu. Horregatik pentsatzen dut etxean asko besarkatu behar ditugula umeak. Ondo ulerta-razi behar diegu eskolan gerta-tzen dena behin-behineko ego-era dela, berez ez dela gertatu behar dena eta orain egoera be-rezi batean gaudela. Azaldu be-har diegu hilabete batzuk pasa-tzen direnean berriz lagunak besarkatu ahal izango dituztela eta elkarri eskutik emanda jo-an. Niri benetan galera irudi-tzen zait, baina zoritxarrez ego-erak horretara behartzen gaitu. Berriz diot, etxean asko besar-katu haurrak.



ireki gure leihoa



GAUR8

PNV-PSE

Joxean Agirre

Gaztetan tarteka zahartzean nola-koa izango nintzen pentsatzen hasten nintzenean gutxi gorabehera orain naizena irudikatzen nuen, anbizio handirik gabeko pertsona bat, uzkur samarra, pitin bat jendearengandik ihesi, lagunarte gutxikoa izanik ere adeitsua, etxeko liburutegian dozena bat autore kutun zituena eta besaulki batean horiek irakurriz edo itsasoari begira denbora galtzen zekiena.

Nire aurreikuspenetan, dena den, bi hutsegite nabarmen egin nituen. Alde batetik, 17 urterekin elizara joateari utzi nionean konbentzituta nengoen jublatu orduko berriro itzuliko nintzela, baina elizako giroa ordukoa baino hitsagoa, tristeagoa, deprimenteagoa iruditzen zait.

Garaitsu horretan egin nintzen ezkerreko, baina banekien gizakiok giro, adin

eta garai baten umeak garela eta konbentzituta nengoen jubilatzearekin bat PNVra itzuliko nintzela edo gutxienez botoa eman behar nuen bakoitzean nire bastoia esku batean eta bestean boto jeltzalea nituela joango nintzela herrenez hauteskunde mahaira.

Aitortu beharra daukat gerora Alderdiak hain ondo saldu zigun euskal oasiaren mitoan erdizka bada ere sinestera iritsi nintzela. Europako lekuri aurreratuenetako batean bizi ginen, eredu eskandinaviarretik gertu. PISA proben txostenak etorri ziren, Bidegi, De Migel eta Bizkaiko alkate zenbaiten kasuak, AHTren auzian egindako hanka sartzeak, eta mitoa kolokan jarri zitzaidan eta I+D arloan Turkiaren atzetik geundela enteratu nintzenean pentsatu nuen mito hori fatxada kontua besterik ez zela, propaganda hutsa.

PNV eta PSEk adostutako programaren aurkezpenean gobernu osaketari buruz galdetu zioten Ortuzarri eta hark ez zela ezustekorik egongo erantzun zuen, bi alderdiak oso prebisibleak zirelako. Eta horrexek definitzen zuela ondoen pentsatu nuen bi alderdion patua, hain prebisibleak izateak hain zuzen. Entzuten diot lehendakariri hizketan edo Idoia Mendiari eta Koldo Saratzagaren K2K Emocionando aholkularitzarekin gogoratzen naiz. «Hunkitu, pentsatu, egin» zela uste dut Saratzagaren leloa eta ez le-torkieke bat ere gaizki Urkulluri eta Mendiari herritarrok hunkitzen ikasteko ikastarotxo bat egingo balute. Ez dut esaten administrazioa osorik NER delakoan sartu behar dutenik, hori iraultza bat litzateke. Konformatuko nintzateke sentimenduren bat (aspermena salbu) transmititzen ikasiko balute. •

Faxisten gorrotoa

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Egunotan bete da mende erdia Joseba Elosegiren ekintza ikusgarritik. 1970ean, Donostiako Atano III.a pilotalekuan, bere buruari su eman zion eta bigarren galieriatik kantxara jauzi egin zuen. Munduko Pilota Txapelketa jokatzeko ari ziren, eta bertan zen Francisco Franco diktadorea. Literalki sutan zela, haren-gana gerturatzea zen Elosegiren helburua, «Gora Euskadi askatuta» oihu egiten zuen bitartean, diktadoreari Gernika suntsitu zuen su kiskalgarria ikusarazi nahi zion. Hamazazpi egun izan zen hilzorian, eta zazpi urteko es-

petxe zigorra ezarri zioten. Eta egun hartako NO-DOak, frontoiko irribarre alaiak eta giro lasaia baino ez zituen erakutsi.

Franco hil zen, haren gorpua atera zuten Erorien Haranetik, eta poztekoa da Frankismoan izandako berme gabeko epaiketak baliogabetzeko erabakia, berandu datorren arren. Edonola ere, Gernikan eragin zuten minak badirau. Eta badirau frankismoaren itzalak ere. Bestela, nola uler daiteke Voxek Espainiako Kongresuan aurkeztu duen proposamena, alderdi independentistak legeaz kanpo uzteko? Eta alderdi horiek

jaso duten diru publikoa itzul dezatela eskatzea, nork eta diru publiko beretik jaten duten faxistek? Nola uler daiteke, ustezko demokrazian, proposamen horren aurka egin ordez, PPk eta Ciudadanosek abstentziora jotzea?

Gernika erre zuen su haren kea baino zerbait gehiago da Espainiako eskuin muturra. Gorrotoa oinarri hartuta, espainiarra ez den nazionalismo oro lurperatu nahi dute. Baina, hamarkadetan egin bezala, jarraituko du errautsetatik berpiztutako herri borondateak isilarazi nahi dutenen aurrean ahotsa altxatzen. •



> Elebitasunaren onurak



GAUR8

Bi hizkuntza modu aktiboan hitz egiteak galera kognitibotik babesten du. Halaxe ondorioztatu dute Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) eta Pompeu Fabra Unibertsitateko (UPF) zientzialariek ikerketa




batean. Hartara, elebitasun maila handiagoa duten Alzheimerdun pazienteen kasuan galera kognitiboa modu mantsoagoan gertatzen dela ikusi dute. Ondorioztatu dutenez, bi hizkuntza aktiboki erabiltzeak

onura neurologikoak ekartzen dizkigu eta zahartzearekin lotutako narriadura kognitibotik babesten gaitu.

“Neuropsychologia” aldizkarian argitaratu duten lan batean, ikertzaileek ondorioztatu dute bi hizkuntza hitz egiteak –eta bizitza osoan hitz egin izanak– erreserba kognitiboan laguntzen duela eta atzeratu egiten duela kognizioa okertzearekin eta dementziarekin lotutako sintomak agertzea.

Aurretik egindako lanen arabera, bizitza osoan zehar bi hizkuntza edo gehiago erabiltzea funtsezko faktorea izan zitekeen erreserba kognitiboa areagotzeko eta dementziaren hasiera atzeratzeko; baita oroi-menaren eta funtzio exekutiboen mesedetan ere.

Bartzelona inguruko jendea aztertu dute, bertan elebitasun maila handia baitago. Ikertu dutenez, bi hizkuntza hitz egitea eta sarritan batetik bestera aldatzea bizitza osoan egiten dugun garunaren entrenamendua da eta horrek mesede egiten dio garunaren kontrol exekutiboari.



> Samuel L. Jacksonek Trumpi: «Zoaz popatik hartzera»

Birala egin da Samuel L. Jackson aktoreak Donald Trump AEBetako egungo presidente eta berrautatzeko hautagai errepublikanoa «popatik hartzera» bidali duen bideoa. Hamabost hizkuntzatan grabatu du Washingtongo aktoreak Twitter bidez zabaltu duen mezu labur bezain argia; besteak beste, euskaraz, hizkun-



tza horretan adierazten baitu lehenik esaldia; gero katalanez ere bai.

Jacksonek HeadCount ekimena babesten du. Erakunde horrek ez du bere burua alderdikoitza jotzen, eta musikaren indarra erabiltzen du boto emaileak erregistratzeko eta demokrazian parte hartzea sustatzeko.



> Zientzia eta teknoko bideo lehiaketa gazteentzat

Zientzia eta teknologiako proiektu edo esperimendu baten inguruko bideo lehiaketa jarri du abian Elhuyarrek 2020ko urrirako, Zientzia Azoka ekimenaren barruan. Datoren urriaren 1etik 31ra, gazteek bideo zientifiko eta teknologikoak aurkezteko epea zabalik egongo da. 12 eta 18 urte bitarteko gazteak banaka zein taldeka aurkez daitezke, eta sariak Estatu frantseseko Futuroscope



parkera taldeko kide guztientzako hiru bidaia izango dira.

Gaia librea da: zientzia ikerketako proiektuak, teknologikoak, esperimenduak... Bideoek bost minutu baino gutxiago iraun behar dute. Izena emateko formularioa eta parte hartzeko oinarri guztiak Elhuyar Zientzia Azokaren webgunean daude (<https://zientzia-azoka.elhuyar.eus/eu/albisteak/bideo-lehiaketa>).

> Jurgi Ekizaren eta Itziar Ituñoren arrazoiak, AEKrekin

Itziar Ituño aktorea eta Jurgi Ekiza musikaria parez pare jarri ditu AEK-k; izan ere, biak AEK-ko ikasle izan ziren bere garaian. Euskara ikasi edo berrikasteko arrazoiak kontatu dituzte bideo batean.

Ekizak, Willis Drummond musika taldeko kideak, ama hizkuntza du euskara, baina auzoko eskolan hasi zenetik, zazpi urterekin, hizkuntza galtzen hasi zen, eskolan frantsez irakasten baitzuten. Euskarazko musika aditzen zuen



etxean, eta ez zuen ulertzen, baina sentitzen zuen horren parte zela. Horregatik eman zuen izena AEKn, 17 urterekin.

Itziar Ituño aktorearen ama saiatu zen Basauriko ikastola bakarrean matrikulatzen alaba, baina ez zuen lortu. Ez zegoen tokirik. Eskola publikoan, A ereduan ikasi zuen, gaztelez. Ez zegoen besterik. Ohartu zen ez zela gai euskaraz esaldi bat esateko, eta ikasteko premia sentitu zuen. 19-20 urterekin eman zuen izena AEKn.



> Peru Sasia, Europako Banku Etikoen Federazioko buru

FEBEAk, Europako Banku Etiko eta Alternatiboen Federazioak, joan den irailaren 2an egin zuen batzar birtualean, kontseilu berri bat, 11 erakundek ordeztua, eta beste hiru urterako presidentea aukeratu zituen. Peru Sasia bilbotarra izango da presidente berria.

Federazioa 29 erakundek osatua da, eta agintaldi berria-



ren atarian Peru Sasiak adierazi duenez, «gaur inoiz baino gehiago esan dezakegu giza jardueraren hainbat arlotan (ekonomikoa, politikoa, kulturala, teknologikoa) garatzen ditugun tresna guztiek benetako balio etikoa eta legitimitatea neurtzen dutela, guztion ongia eraikitzeko lan horretara bideratzen diren neurrian».



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Paraleloa eta beste paralelo bat

Bizitza paralelo hura (edo hau) hasi genuen une haiek ahaztu zaizkidala iruditzen zait batzuetan. Planeatu gabeko eguneroko errutina aldatara ohitu nintzen, etxeko bulegoa dekoratu nuen, harreman transakzio-nalez betetako bilerez bete ziren nire egunak, benetan kritikoa zen horretan bakarrik lehentasunak ezarri. Aurrez aurreko harreman guztiak aldatu genituen, eta Internetek lagundu zigun munduarekin kontaktuan jarraitzen. Telefonoak egunero bidaltzen didan mezu automatikoa aurreko astetik Interneten emandako minutuak gora doazela esaten dit, kezka sortzen hasteraino. Londresko kaleetako hutsunera ohitu nintzen; pubetara ez joatea normala bihurtu zen; ikuslerik gabeko futbol estadioak telebistan erakusten dizkigute, inteligentzia artifizialez programatutako zaleen soinuekin eta horretara ere ohitu naiz; deseroso sentiarazi gaituzte jatetxeetan, «ez du merezi joatea» esaten dugu. Hau al da hiri honen kosmopolita izaeraren amaiera? “The end”.

Hori dena egin genuen entrenamendurik gabe, inposizioak eskatzen duen erreazio iraultzailerik gabe. Ezer kuestionatzeko denborarik gabe. Ez zegoen denborarik.

Eta, hori guztia gertatzen ari zen bitartean Brexitaz ahaztu ginen. Albistegietatik desagertu zen. Hori ote zen covid-19ak ekarri zigun alde positibotako bat?

Covidak kutsatuko Brexita ez zuen inork aurreikusten, eta ekonomiak behera egin duenean, kezka zabaldu da, urduritasuna nabari da, krisia bikoiztu egingo dutelako, jendea gertutik hasi delako ondorioak sentitzen. Langabezia igo delako. Enpresak ez direlako ari kontratazio berriak egiten. Eta, berriro ere etxean sartzeko posibilitatea hor ikusten dugulako, biga-

rren aldiz. Baina ezin ahaztu, hauteskundeetan gehiengo eztabaida ezin hura lortu zuenean, Johnsonen alde bozkatu zutenek Brexitarren alde ere bozkatu zutela. Zeharka. Beraz, orain covid-19aren ondoren hainbaten egoera ekonomikoa okertu delako, ezin da negar egin. Koherentzia, lagun. Onean eta txarrean.

Sei pertsonatik gorako taldeak debekatu dituzte aste honetan. Eta, arau hori hausten ari den norbait ikusten badugu kontaktatzeko eskatu digute. Salatzeko. Konturatu ere egin gabe, Stasi eiteko parlamentu bat bihurtzen ari da hau. Edo, ez da egia, beste errealitate bat da hori?

Bitartean, bestelako mezuak iristen ari zaizkigu Parlamentutik. Brexita kontrolpean dagoela. Baina, Johnson Europarekin joko arriskutsu batean hasi berri da: aurretik hitzartutako hainbat akordio errespetatu gabe, legegari gor eginez; Brexit “gogor” batekin aurrez aurre, sokaren gainean, balantzaka. Europar Batasunari egotzi dio errua Johnsonek, ez dela intentzio onez negoziatzen leporatuz. Covid-

19aren eta Brexitarren konbinazio lehergarria eztanda egitear dago. Tik-tak. Tik-tak.

Zein da Johnsonen erregelarik gabeko bizitza paralelo hori?

Atzo Johnsonek esan zuen egunean 10 milioi test egiteko gaitasuna izango dutela urritik aurrera. Ironikoa, test sistemaren azpiegiturek porrot egin dutenean eta egunean 200 mila test baino egiteko gai ez direnean. Logistikoki ezinezkoa dirudien egoera bat proposatu digu eta konfiantza eta lasaitasun osoz bota du. Eta, dantzan jarri ditu denak, albistegiak, egunkariak.

Alienatu gaitu berriro ere. Zer da lortu nahi duena joko taktiko horrekin? Hainbat egoera paralelo kontro-la galduta dauzkagu. Arazoari seriotasuna kentzea da akaso nahi duena. Okerrena da, ordea, ez dakigula zein izango den bere xake partida partikularreko hurrengo mugimendua. Peoi, gaztelu eta zaldi guztiak behar ko ditugu erasoari aurre egiteko. Nonbaitetik kendu behar baldin bada, gakoa hor dago, jakingo genuke nondik! •



Londresko herritarrak koronabirusaren proba egiteko ilaran.

Justin TALLIS | AFP

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



RIKARDO MARTIN. PHOTO CARTE. KUTXATEKA

BUSTER KEATON DONOSTIAN, ZEZEN ETA TXALO ARTEAN

1930eko abuztuaren hasieran, Buster Keaton iparramerikar aktorea, besteak beste, "The General" filmagatik oso ezaguna, Biarritzera etorri zen opor egun batzuk pasatzera. Harekin batera, Natalie Talmadge emaztea eta haren ahizpa Norma, biak aktoreak. Bidaia hartan Luis Alonso aktoreak lagundu zien. Alonso, "Gilbert Roland" ezizenez, Juarez (Mexiko) jaioa zen eta euskal jatorrikoa, gurasoak bilbotarrak baitziren. Biarritzen, Miramar hotelean hartu zuen ostatu eta handik Euskal Herriko toki batzuetara joan zen. Baionan, pilota partida batzuetara, eta abuztuaren 10ean, Donostian, zezenketa bat ikustera. Biarritzetik Donostiarako bidaia horretan lagundu zioten Metro-Goldwyn-Mayer konpainiako Europako ordezkari zen Habid jaunak, une horretan Biarritzen zebiltzan aktore eta dantzari Dolly Sisters ahizpek eta Gilbert Rolandek berak. Donostiako egunkari batek egindako elkarriketa batean, aktoreari galdetu zioten ea zer tankera hartu zion zezenketari arratsalde hartan, eta hark erantzun zuen: «Inpresiorik handiena zezen plazan jendeak eskaini zizkidan txaloak izan ziren. Izugarritzko poza izan zen niretzat. Nik ikuslerik gabe egiten dut lan, nire arte guztia milioika lagun eskura jartzen dut, eta ez nekien zer zen txaloen goraipamen hori». Ricardo Martinek egindako argazkian Buster Keaton ageri da MGMko Habidekin eta Gilbert Rolandekin.



GAUR8 ireki gure leihoa

